

**ELKARREKIN
BIZIKIDETZA ERAIKIZ,
LEHEN HEZKUNTZAKO
PROGRAMA**



IKERTZE

emocióna
enseña
pensa
experimenta

arte

w.w.w.ikertze.org

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRATIO SAILA
Justizia Sailburuordetza
Giza Eskubideen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Viceconsejería de Justicia
Dirección de Derechos Humanos

Sarrera

Ikasgelarako jarduerak

3.1. Sarrera

3.1.1. Programazioa

3.2. Hasierako zikloa: nortasuna

3.2.1. Programazioa

3.2.2. Jarduera-fitxa: ni nor naiz

3.2.3. Jarduera-fitxa: nire gorputza, nire etxea

3.3. Erdi-mailako zikloa: kooperazioa eta garapena

3.3.1. Programazioa

3.3.2. Jarduera-fitxa: zaharren egoitzara bisita

3.3.3. Jarduera-fitxa: beldurra

3.4. Goi-mailako zikloa: bizitza eta gatazka

3.4.1. Programazioa

3.4.2. Jarduera-fitxa: aurreiritziak

3.4.3. Jarduera-fitxa: animalia bat ikasgelan

3.5. Gorputz-hezkuntzan lantzeko jarduerak

Bibliografia

Marko teorikoa

2.1. Sarrera

2.2. Helburuak

2.3. Metodologia

2.3.1. Erregistroa eta balorazioa

4. Balorazioa

4.1. Haurren eta irakasleen iritzia

4.2. Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren efektuak garapen sozioemozional eta sortzailearen faktoreetan

4.2.1. Sarrera

4.2.2. Metodoa

4.2.3. Emaitzak

Lantaldea

1. CARRERA

Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programa, hurrek ikastetxean bizikidetzarako garrantzitsuak diren gaiei buruz hausnartzeko eta iritziak eratzeko espazioa eta denbora izatea ahalbidetzen duen hezkuntza-proposamen bat da. Bizikidetzarako gai garrantzitsuen artean ditugu giza-eskubideak, gatazkak, diskriminazioak, errespetua, pertsonen garapena, nortasuna, sentimenduak eta emozioak...

Proposamen hau hezurmamitu ahal izan da Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza-eskubideak sailaren babesari eta laguntzari esker, eta Koldo Mitxelena Herri Ikastetxearen lankidetzari esker, azken horretan probatu baitira materialak eta egin baita esperientzia pilotua; hori gabe argitalpen hau egitea ezinezkoa izango zen. Hona hemen horren testigantza:

“Koldo Mitxelena ikastetxean, orain dela urte batzuetatik hona Eskola Barneratzaile baten bidean lanean ari gara.

Denontzako Eskola horretan, edonork onartua dela sentitu behar du. Norbera bere emozio eta sentimenduak ezagutzeko, onartzeko eta azaltzeko gai izan beharko da. Eskola Barneratzaile bat lortzeko tutoretza saioetan gai hauek jorratzea eta programazio egoki batean islatzea ezinbestekoa ikusten dugu.

Bide horretan, Ikertze taldearekin topo egin genuen. 2006/2007 ikasturtetik 2008/2009 ikasturtera Bizikidetzarako Proiektu Pilotua Ikertze taldearen eskutik martxan jarri genuen. Proiektu hori honako hiru ardatz hauetan oinarritzen da: NORTASUNA, GARAPENA eta BIZITZA. Talde honen proposamena Haurren Eskubideetan oinarritzen da, eta gure eskolako Hezkuntza Proiektuaren ildoarekin bat dator.

Gaur egun Tutoretza saioak eskolan oso finkatuta daude. Hiru ikasturte horietan Ikertzek sortutako materialak eta jarduerak gure curriculumean txertatu ditugu. Ikertze Taldeak programa hau eskolako errealitateari egokitu nahian tutoreen balorazio, iritzi eta ekarpenak kontuan izan ditu, prozesu luze honetan proiektua argitaratu arte.

Programa honen metodologia artelanean eta Haurrentzako Filosofian oinarritzen da. Ikertze, Gernika Gogoatuz eta Bartzelonako GruplREFengandik (Filosofía para niños) formazioa ere jaso izan dugu.

Bukatzeko, aitortu behar dugu proiektu honetatik sortu den materialak eta erabiltzen den metodologiak gure eguneroko lanean ere eragin positiboa izaten duela.”

***Errenteria, 2011ko martxoaren 8an
Koldo Mitxelena Herri Ikastetxea***

Luzamendutan aritu gabe, orrialde hauetan, Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen hezkuntzako programaren ezaugarri garrantzitsuenak eta jarduera didaktikoen lagin bat aurkezten ditugu. Ikertzeren webgunean aurki dezakezue programa osoa (www.ikertze.org).

Bigarren atalean marko teorikoari dagozkion aipamenak aurki daitezke: programaren diseinurako abiapuntu izan diren oinarriak eta ezarritako helburuak. Fitxa didaktikoak ikasgelan eman beharreko urrats guztiak jarraitzeko moduan daude erredaktatuak, baina aproposa iruditu zaigu metodologiaren ezaugarri nagusiak nahiz erregistrorako eta baloraziorako baliabideak xehetasun gehiagorekin azaltzea 2.3 atalean.

Azpimarratu beharra dago, proiektu honetarako behar-beharrezkoa eta laguntza handia izan dela GrupIREF taldearen lankidetzaz (www.grupiref). Beren haurren filosofiari buruzko ezagutzak eta filosofia 3/18 curriculumeko lana funtsezkoak izan dira aurkezten dizuegun programa egiterako garaian.

Hirugarren puntuan hezkuntza proposamena aurkezten dizuegu. Ikus daitekeen bezala, hainbat jarduera-fitxek osatzen dute programa, eta horiek lehen hezkuntzako ziklo guztietarako dira, hiru hilekoko eta urteko sailkatuta. Asteazken bat edo bi egiteko programatuta daude, baina noizbehinka eta modu independentean ere erabili daitezke. Ziklo bakoitzeko bi jardura biltzen dituen aukeraketa bat erakusten dizuegu.

Gure eskerrik beroena Zuhar Iruretagoiena eta Adela de Bara artistei, ikasgelarako testuinguruak eta baliabideak sortzeko material grafikoak prestatzeagatik. Elkarrekin bizikidetzaz eraikiz, Lehen hezkuntzako programak gorputz-hezkuntzaren esparruari ere erantzuten dio, mugimenduaren eta gorputz-adierazpenaren bidez. Ikuspegi horretatik hausnarketarako gaiak lantzeko hainbat ariketa bildu eta sortu dira, eta horien lagin bat 3.5 atalean aurki daiteke.

Haurren garapen sozioemotional eta sortzailearen faktoreetan programak duen eraginari buruzko ikerketa-gai izan da proiektua; José Ignacio Pérez eta Maite Garaigordobilek zuzendu dute, eta 4. atalean aurki daiteke (haur eta irakasleek programari buruz eman duten iritziarekin batera). Ikerketa horretan Irungo Dunboa eskolak parte hartu zuten, kontrolerako talde gisa ebaluazioan parte hartzea onartu baitzuten.

Baliabide didaktiko ugari eta pertsona talde handi baten lana eskolaren zerbitzura jartzen duen hezkuntza-proposamen hau aurkezten dizuegu, bizikidetzaz onaren ibilbidean bidea egin dezagun.

Donostia, 2011ko urria.

Ikertze

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Sarrera

2.2. Helburuak

2.3. Metodologia

2.3.1. Erregistroa eta balorazioa

Sarrera

2.1. Sarrera

2005ean proiektua diseinatzen hasi ginenean, gure lehen urratsa marko teorikoa edo erreferentziazko markoa zehaztea izan zen, baliagarria izango zena edukiak eta jarduerak aukeratzeko garaian irizpideak edukitzeko. Marko hori eratzeko 3 erreferentzia argi izan genituen: batetik, Edwin Satub eta Xesus Xares bake-hezkuntzako gaietan aitzindariak, bestetik, Edgar Morin eta haren ***Etorkizuneko hezkuntzarako zazpi beharrezko jakintzak*** saiakera dotorea, eta azkenik, edukiak garatzeko marko kontzeptual argi gisa, haurren eskubideak.

Diziplinarteko talde bati egin zitzaion deia: elkarrizketa trebatzeko baliabideak sortzeko haurren filosofiako adituak, gatazken konponbidean adituak, artistak, ebaluatze-gaietan adituak, irakasleak eta haurrak.

Eta talde-lan hartatik sortu zen, hezkuntzaren bidez bake-kultura indartzeko asmoz, ELKARREKIN BIZIKIDETZA ERAIKIZ, LEHEN HEZKUNTZAKO PROGRAMA; giza-eskubideekiko hausnarketa eta elkarrizketa proposatzen du, eta horretarako bi tresna erabiltzen ditu, filosofia eta artea (etika eta estetika), baliabide sinpleak eskaintzen baitituzte arrazonamendua eta emozio-adierazpena trebatzeko.

Zergatik erabili filosofia bizikidetzarako hezkuntzan?

Irene de Puig eta Manuela Gómez. GrupIREF

Filosofia tresna eta babesleku izan daiteke bizikidetzarako hezkuntza lantzeko. Filosofiak, diziplina eta metodo gisa, lagun diezaguke ulermena hobetzen, hausnartzaileago bilakatzen, zenbait kontzeptu argitzen, kritikoagoak izaten eta, azken batean, inguruan dugun munduaz jabetzen.

Haurrentzat egokitu daitekeen filosofia forma bati buruz mintzo gara, hausnartzeko modu batez, ez ideiak eta korrontek inposatzeko modu batez. Izaera filosofikoz mintzo gara, hiritartasun betean sartzeko behar dugunaz, gizarte demokratiko orok arrazoizkotasun idealera hurbiltzeko behar duenaz.

Haurrak beren kabuz hobeto pentsatzeko gai izatea da gure helburua. Hasiera batean, pentsa daiteke helburu horrek ez duela zerikusirik demokraziarako hezkuntzarekin. Baina nahikoa da pixka bat atzera egin eta gogora ekartzea dagoeneko Grezia klasikoko demokraziaren jarduna diskurtso arrazonaletik abiatzen zela. Argudiaketa arrazonamendu-forma gisa ekintza publikoko eztabaidetan beti ageri da, jarrera desberdinak eta dibergenteak onartzeko gaitasuna bermatzeko, eta baita alternatiba desberdinak aitortzeko eta errespetatzeko ere. Ez dago demokraziarik ez badago eztabaidarako eta ikuspegi desberdinetarako espazio ireki bat. Gizarte demokratikoak garatzen lagundu nahi badugu, ez dugu itxoin behar pertsonak “adinez nagusiak” izatera, gazte-gaztetatik bizikidetzaren jardunari lehentasuna ematen dioten giroak sortu ditzakegu eta praktikei bide eman diezaikegu.

Egungo gizarte demokratikoetan eskola ideia horietatik kanpo geratzen da, ez ditu kontuan hartzen, ez hezkuntza sistemei dagokionez, ezta erabiltzen diren metodologiei dagokionez ere.

Balore demokratikoen jardute aske eta kontzienteak, hain zuzen, gaitasuna eta interesa eskatzen ditu baina baita autonomia pertsonala ere. Baina argi dago autonomia ez dugula berezkoa, lortu egin behar dugu; gizakiak mendeko jaiotzen gara, independizatu egin behar gara, autonomia jarrera positibo gisa hartu behar dugu, jarrera borrokalari gisa eta, beharrezkoa bada, jarrera defentsibo gisa. Erabakitze gaitasunarekin jaiotzen gara, baina hori, gaitasun guztiak bezala, landu egin behar da. Gizarte demokratiko batek aintzat hartu behar du bere ikasleak demokratikoki hezi behar direla. Demokrazia balore gisa, praktika gisa, ez da berezkoa, ez da jaiotzetikoa. Edozein labore bezala, ureztatu egin behar da, behatu eta zaindu klimaren gorabeherak kontuan izanda. Ahalegina egin behar dugu gizarte demokratiko honetan integratutako eskola bat izateko, pertsona autonomoak, irizpidedunak eta erabakitze gaitasuna eta nahia dutenak sortzen dituen.

Zein da, beraz, filosofiaren eta bizikidetzarako hezkuntzaren arteko erlazioa?

Eskolan aplikatutako filosofiako lan batek bake-kultura bat egonkortzeko behar diren jarrera eta portaera demokratikoak garatzen laguntzen du.

Demokraziak hiritar hausnartzaileak behar ditu, eta horretan hezitzaile gehienak bat etorriko lirateke. Hori nola lortu; horrexek sortzen ditu desadostasunak. Bide guztiak erabili behar direla uste dugu, baina uste dugu filosofia erabilera handiko oinarria izan daitekeela hezkuntza demokratikoan.

Matthew Lipman, Philosophy for Children curriculumaren sortzailearentzat, badira, gutxienez, hezkuntza demokratikoaren hiru alderdi erro filosofikoa dutenak:

- 1) Filosofia kontzeptuak eratze eta aztertze. Baliabide terminologikoak ematen dizkioten kontzeptu abstraktu eta adierazgarriekin lan egiten du filosofia, bereziki, askatasuna, justizia, egia... bezalako termino funtsezko eta polemikoekin. Erabat definitu ezin daitezkeen terminoak dira; marko batean kokatu behar dira, eta ezinbesteko gertatzen dira abiapuntu gisa. Komunitatean aztertuta soilik zentzua duten kontzeptuak dira.
- 2) Filosofia pentsamendu dimentsioaniztun bat potentziateko gaitasun gisa. Ikasleen, hau da, hiritar direnen edo izango direnen arrazonamendu-gaitasuna hobetzea hezkuntza-potentziala du filosofia. Behar bezala landuta, pentsamendu eraginkor, formalki zuzen, kritikoa, baloraziozkoa eta sortzailea eratzen laguntzen du.
- 3) Filosofia erabakitze gaitasun gisa. Filosofian elkarriketak edo eztabaidak garrantzi handia du, ez delako mugatzen gehiengoaren iritzia adostera, kontrastatu daitezkeen epai arrazoitu eta funtsatuen mende dago. Ez badago eztabaidarik ezjakintasunagatik, arinegi pentsatzeagatik eta hausnarketa faltagatik, ez dago benetako demokraziarik. Eta ez badago eztabaidarako hezkuntzarik, oso zaila da hori espontaneoki gertatzea eta heldutasun demokratikoaz hitz egin ahal izatea.

Filosofia, beraz, kontzeptuak eratzea eta aztertzea potentziatzen du; pentsamendu dimentsioaniztuneko hezkuntzan laguntzen du, eta eztabaida-jarrera ematen du.

*Gogora ekarri nahi dugu **Philosophy for Children** proiektua Europako Kontseiluak gomendatu zuela (Dokumentua: DECS/SE/BS/Donau -93- 2) hezkuntza demokratikoa laguntzen duten munduko hezkuntza-proiektuetako bat gisa.

Zergatik erabili artea bizikidetzarako hezkuntzan?

Arteak bihotzera heltzeko eta emozioak esnatzeko duen botereagatik.

Arteak gutaz hitz egiten du, neurtu egiten gaitu, gure frekuentzia neurtzen du, gure sentsibiltatea, gure ideiak eta bihotza irekitzeko aukera eskaintzen digu, izendatu ezin daitekeen hori sentitzeko: izendatzeko hitzik ez dagoenean edo soberan daudenean edo aurkitzen ez direnean.

Sorkuntza tentsioa da, bizirik egotearen sentsazioa, denbora-zentzuaren galera, korrante sortailearekin fusioa. Artean bidea ez da amaitzen, irtenbidea inoiz ez da bakarra, adierazpena ez da agortzen. Desberdina dena miresteko modukoa da; besteei aberasgarri gertatzen da, integratu egiten dugu, gure egiten dugu.

Artearen historia da artistek ezinezkoa asmatzeko desafioen historia; arazo bati emandako irtenbide bakoitzak, beste momentu batean, beste leku batean, erronka berri bat sortzen du, aukera berri bat, musikarentzat, poesiarentzat, pinturarentzat, zinearentzat... Ez dago mugarik. Mestizajea da bilakaeraren motorra, eta horregatik ikusten dugu artista atsegin handiz beste kultura batzuetara gerturatzen, sorkuntza pertsonaleko bide berrientzako ateak bilatzen, arrazismotik eta bazterketatik urrun.

Artistaren artean garrantzitsuena prozesua da, artistaren hitzetan hegan egitea, hegaldia baita espiritua elikatzen duena, bizirik sentiarazten gaituena. Eta hegaldi hori, egite artistiko hori, ezustekorako entrenamendu paregabea da, akatsa bidelagun eta aukera duen bidaia horretan.

Artea leku guztietan dago. Espirituaren behar unibertsal intimoa betetzera etorri zen. Beharrezkoa da kultura guztietan. Irudimena, metafora, jolasa, energia, jakin-mina, mezua, sentsibiltatea eta sormena dira artearen landaketa-esparrua.

Merkatueta dauden barazkiak, esekitako arropa, arrainak eguzkitan lehortzen, mahai on bat, mendi usaina armairu batean... dena da artea edo ezer ez da artea, esaten zuen artistak.

Denak du interes estetiko, denak balio du, eta dena interpreta daiteke.

Dena da artea eta, hala ere, eskolan zein tarte txikia eskaintzen zaio arteari.

Gabezi hori ulertu ahal izateko, mende asko egin behar ditugu atzera. Platonek argi utzi zuen ezin zela ezagutza eraiki zentzuen bidez jasotako informazioa oinarri hartuta; materia etengabe aldatzen ari denez, informazio horrek berezkoa du errorea. Ideia horrek sinestarazi zigun arrazoi delatzen ezagutzara iristeko bitarteko fidagarriena eta horrek lagundu du emozioak ikasgeletatik urrun edukitzea; txoko sotil eta intimoagoetara mugatu ditu.

Mendeetan zehar, emozioen mundua mundu femeninoa izan da eta, beraz, ikuskizunak behar ez duen intimitate isilaren parte da. Eta mundu honetakoa pentsamendu zaindua da, ingurunea edertzeko gaitasuna trebatzen duena; arte hori bizitzarako da eta ez soilik artistarentzat.

Gure ikasgelek entrenamendu-esparru izaten jarraitzen dute, eta giza-espezieak, inoiz baino gehiago, gure planetarekin eta gure espeziearekin maitekorrak eta askeak diren pertsonak behar ditu. Jakintsuak zioen guztion bakea norberaren bakean oinarritzen dela, eta hori konpromiso pertsonala da, borondatezkoa, barrurantz bidaia da.

Hizlari bati entzun nion esaten maisuak direla XXI. mendeko heroiak, eta arrazoia zuen. Gure planeta arriskuan dago eta gure espezieak etorkizunean baldintza batzuk behar ditu, kontzientzia ekologikoa, gizalegezkoa, solidarioa, filantropikoa... eta gainera bizitza umorearekin hartzea; gerrillariak zioen bezala, iraultza festa bat da, bestela... ez da... ez da gertatzen...

Arteak, irakasle baten eskutan, lagun dezake lana jolas bilakatzen; gaitasunak trebatzeko aitzakia bat da, imajinatzeko, irudikatze, adierazteko, talde bat eraikitze, barre egiteko, edertzeko, zaintzeko...

Baina hori gerta dadin, ezinbestekoa da eredurik ez jartzea helburu, eta espazioa/isiltasuna uztea proposamen xumearen ostean.

Artearen deia entzuteko, helduak bere sortzaile-arima ireki behar du, bere arimak kutsatzen eta sustatzen baititu gazteak gauzak deskubritzera, sormenarekin topo egitera. Maisuak denborarik ez badu, ez badu ikasgela tailer gisa prestatu, zaila da indibidualtasuna ateratzea, eta emaitzak errepikatutako ereduak izango dira, berezko bizitzarik ez dutenak, emoziorik gabeak.

Eta jakintsuek esan zuten: ***“Ideiek mundua mugitzen dute, baina ez sentimendu bilakatu aurretik”***. Sentitzea ideiarik gabe pentsatzea da, horrexegatik sentitzea ulertzea da.



Helburuak

2.2. Programaren helburu orokorrak

- Beste pertsona batzuekin eskubide berak partekatzen ditugun planeta batean bizi garen giza espeziearen pertsona bakar gisa geure burua aitortzen laguntzea.
- Hurrei beren ideiak eta emozioak espresatzeko hitz egitera ohituta dauden pertsonak izaten laguntzea.
- Hurrei beren sentitzeko, pentsatzeko eta egiteko gaitasunaz jabetzen laguntzea. Ikasteko eta baloratzeko gai izatea. Eta gure garapen afektiboa, espiritual, intelektuala eta gure energia laguntzen eta oztopatzen duena zer den jakiten laguntzea.
- Gatazka bizikidetzaren berezko ezaugarria dela eta hazkuntzarako eta garapenerako lagungarri dela jabetzen laguntzea.
- Bizitza ohoratzeko eta babesteko maitasuna, barkamena eta errukia indartzen laguntzea.
- Barrearentzako eta emozioarentzako denbora eta espazio bat eraikitzen laguntzea, sormenak pertsona eraikitzen lagun dezan.



Metodologia

2.3. Metodologia

Jarraian aurkezten dizuegun programa, gaiari eta metodologiari dagokionez, bizikidetzarako hezkuntzaren markoan kokatzen da. Haurrek beren kabuz eta taldeko elkarrizketaren bitartez pentsatzeko duten gaitasuna garatzea bilatzen da, eta hori lortzeko proposatzen dugun tresna filosofia da. Filosofia metodo gisa, argudioak aukeratzeko, kontzeptuak hautatzeko, gezurrak detektatzeko, adibideak eta kontradibideak bilatzeko garaian zorrotz bilakatzen gaituen diziplina gisa. Programak bilatzen duena da elkarrizketa parte hartzailea, aztertzailea, kooperatiboa, argudiatua eta funtsatua izatea; ikasleek parte hartzen dutenean kideen ekarpenak kontuan hartzea, eta kideekin errespetuzko jarrera izatea.

Hezitzaileak gai bat, galdekizun bat edo galdera bat proposatuko du, eta haurrek beren ekarpenak egiten eta eraikitzen joango dira, gainerakoek esaten dutena entzuten eta horretan oinarrituz denen artean aurrera egingo dute, ikertuz eta ezagutza eraikiz. Elkarrizketa filosofiko baten aurrean gaudela dakigu partaideen ikuspegiak, zalantzak, iritziak edo ezagutzak ez direnean hasieran zizutzen berberak, hau da, hitz egin den horretan aurrerapen bat edo bilakaera bat egon denean (behar bada zerbait berria deskubritu dugu, behar bada galdera edo arazo bat formulatzera iritsi gara, behar bada adostasun batera iritsi gara etab.) eta ez denean izan iritziak emateko edo eztabaidarako gune soil bat.

Irakasleek jarduera-fitxetan baliabide ugari, forma askotarikoak eta erakargarriak, topatuko dituzte ikasgelan landu beharreko gaia aurkezteko, ikasleak sustatzeko eta motibatze modukoak: filmak edo film laburrak, ipuinak, Power Point aurkezpenak, argazki-muntaiak, plastikako ariketak, jolas kooperatiboak, gorputz hezkuntzan gorputzarekin lan egiteko proposamenak, etab., azken batean, elkarrizketa sortzeko eta hausnarketak zentzua izateko testuinguruak sor ditzaketen baliabideak.

Garrantzitsua da kontu handia izatea elkarrizketa hasteko garaian, abiapuntuak haurrentzat interesa eduki behar baitu, ez irakaslearentzat, haurren inplikazioa, hein handi batean, horren araberakoa izango baita. Jarduera-fitxetan galdera-sekuentziak proposatzen dira, baina benetako gida ikasleen galderek osatu behar dute; hezitzailea adi egon beharko da, eta beti galdetu beharko die zerbait aipatu edo galdetu nahi duten, harritu dien ezer atera ote den...

Programa eta metodologia jarraitu ahal izateko, garrantzitsua da ikasleei azaltzea zer egingo den saioetan, eta denen artean ezartzea jardueraren funtzionamendu onerako gure ustez errespetatu behar diren baldintzak edo arauak. Helburu horrekin diseinatu dira ikasturte bakoitzeko programari hasiera ematen dioten fitxak.

Jarduerak, beraz, elkarrizketa eta ikerkuntza abiatzeko eta sortzeko pentsatuta daude, baina hein berean da garrantzitsua denbora bat hartzea laburbiltzeko, balorazioa egiteko eta saioa ixteko (saio bakoitzean nahiz bloke bakoitza amaitzean, ezagutza gogora ekartzeko eta finkatzeko; hori kontuan izanda diseinatu dira hiru hileko bakoitzaren amaierarako errepasorako fitxak).

Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren saioetan jarraitzea proposatzen den egitura honako eskema honetan laburbildu da:

HASIERA

- Motibazioa, egingo denaren azalpena.
- Aurreko saioan egin zenarekin erlazionatu.

GARAPENA

- Praktikan jarri jardueraren baliabideak.
- Elkarriketa, galderak, argudioak.

AMAIERA

- Laburpena, egindako lanaren errepasoa. Zer ikasi dugu? Nola ikasi dugu? Zer egin dugu? Zer gai landu dugu? Egon al da harritu gaituen ezer? Zer iruditu zaigu interesgarriena?
- Bidaia-koadernoa (ikus 2.3.1. atala).
- Balorazioa (ikus 2.3.1. atala).

‘Ikasgelarako jarduerak’ izeneko hirugarren ataleko jarduera-fitxetan ikus daitekeen bezala, ikasgelan irakasleak erraz aplikatzeko modukoak izateko erredaktatu eta diseinatu ditugu; saioan eman beharreko pausuen arabera antolatuta daude (hasiera, garapena eta amaiera) eta elkarriketa filosofikoa sortzeko eta laguntzeko jarraibideak eskaintzen dira. Hala ere, jarraian, hori sustatzen lagun dezaketen galdera-zerrenda bat aurkezten dizuegu:

Ikasleei lagundu aztertzen eta ikertzen.	Nola jakin dezakegu...? Nola topa dezakegu...?
Ikasleak hipotesiak formula ditzaten sustatu.	Zer azalpen eman diezaiokegu honako honi...? Zer gertatuko litzateke baldin eta...?
Ikasleek alternatibak bila ditzaten sustatu.	Zer beste modutan azal dezakegu honako hau...? Norbaiti beste soluziorik bururatu zaio?
Ikasleei lagundu terminoen esanahia argitzen.	Hitz horiek erabiltzean, zer esan nahi duzu?
Ikasleei lagundu antzekotasunak eta desberdintasunak bilatzen.	Zer dute komunean ... eta ...? Zer dute desberdina... eta ...?
Ikasleei sailkatzen lagundu.	Zenbat modutan multzoka ditzakegu...?
Ikasleak sustatu beren iritzien arrazoiak emateko.	Zer arrazoi duzu honako hau esateko:...?
Ikasleei lagundu ematen dituzten arrazoiak ebaluatzen.	Uste duzu... arrazoi ona dela?
Ikasleei lagundu ikusten baieztapenek dakartzaten ondorioak.	Egiaztapena egia bada, zer ondoriozta dezakegu?
Ikasleak sustatu kausak eta efektuak erlazionatzera.	Hori gertatzen denean, horrek zer ondorio ditu?
Ikasleak sustatu hitzekoa ez den hizkuntza hitzekoa dena itzultzea eta alderantziz.	Zer esanahi du keinu honek? Nola adieraz dezakegu hori keinu baten bidez?
Ikasleei lagundu esan nahi dutena laburtzen.	Azal dezakezu hitz gutxitan...?

Artea eta elkarrizketa filosofikoa dira Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren osagaiak. Garrantzitsua izango da, beraz, denbora-tarte eta espazio bat egotea elkarrizketarako eta beste bat tailerrean esperimentatzeko:

Nola bihurtu ikasgela tailer batean.

Tailer bat bilaketarako eta topaketarako gunea da; leku horretan zikindu egin dezakegu eta gero garbitu; zakarrontzi handia du, eta ahalik eta erosotasun handienarekin leku pribilegiatu bat proposamenak eskatzen dituen tresna eta materialez betetzen da. Tailer batean argia oso garrantzitsua da eta baita musika –ahal izanez gero–, ura, trpuak eta erratzak ere.

Tailerra gure ikasgela bada, honako hauek adostea komeni da:

Nola lan egin nahi dugun: zutik, eserita, elkar ikusteko moduan, talde txikitan...

Nola prestatu materiala: espazioak eta mahaiek uzten duten heinean, guri *self service* metodoa gustatzen zaigu, oso baliagarria baita autonomia lantzeko, gauzak bere lekuan uzteko eta amaieran gauzak jasotzeko momenturako.

Metodo honen arabera, materialak ilaran jarri behar dira; haur bakoitzari plastikozko plater bat eman behar zaio behar duena har dezan eta mahaian bere materialak txukun eduki ditzan, ondokoaren materialekin nahastu gabe.

Egiaztatuta daukagu sormenean eta emaitzetan eragin handia dutela erabiltzen diren materialek eta baita horiek nola ipintzen diren. Garrantzitsua da kontu horri denbora eskaintzea eta taldeak horretan parte hartzea. Beti izaten dut gogoan harri eta makilekin egindako lan-proposamen bat. Askok ikasi nuen prozesu hartan, jakin genuen denbora hartzen: bilatu, prestatu, sailkatu eta baita gordetzeko edukiontziak sortu ere. Sekula ez zen taldea hain autonomoa izan, eta ez zuen hain antolakuntza ona eduki; amaierako erakusketak prozesu guztia erakutsi zuen. Gozamina izan zen guztiontzat.

Nola aurkeztu proposamena: egiaztatu dugu funtsezkoa dela ikasgelarako proposamen bat prestatzean aurrez norberak egitea, ahal izanez gero lankideekin. Horrela ikus dezakegu ikasleek zer zailtasun izan ditzaketen eta laguntzen digu eredu bakarra ez izaten (gehienetan eredu hori kopianatzeko joera izaten dute gainera). Orokorrean, hurrei ariketak modu honetara azalduta ondo ateratzen direla frogatu dugu: 1. Moztu, 2. Ipini, 3. Itsatsi, 4. Ondo itsatsita dagoela ikusi, 5. Izena eta izenburua ipini.

Zein da gure funtzioa tailerrean: laguntzaileak gara, eta gai teknikoekin eta antolakuntzazkoekin laguntzeko gaude. Leihoak ere bagara, eta esparrua irekitzen lagun dezaketen esperientziak ere erakutsi ditzakegu.

Zer tratatu emango diegu emaitzei: emaitza horiek bakarrak eta errepika ezinak dira, eta guk halaxe tratatuko ditugu. Haurren lanekiko errespetua erakusten badugu eta ongi zaintzen baditugu, hori neska mutilengana iristen da, eta kutsatu egiten da. Emaitzak pasillora ateratzea ere behar handiena dutenen lana azpimarratzeko modua ere bada. Maisu batek irakatsi zidan, gehienetan, garrantzitsuena begi-bazterretatik soilik ikus dezakegula. Irakaspen hori esker onez gordetzen dugu gure altxortegian.

2.3.1. Erregistroa eta balorazioa

Erregistroa eta balorazioa programaren bi alderdi garrantzitsu dira, ikasleei eta irakasleei hezkuntza-prozesuaren hausnarketan laguntzeko eta jabetu daitezen ikasketaz eta jasotako ezagutza berriez. Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programan lan-prozesua erregistratzeko erabiltzen den tresna bidaia-koaderno da, eta ebaluatzeko, balorazio figuroanalogikoa edo irudi bidezko balorazioa.

Bidaia-koaderno

Haurrak, modu boluntarioan, saioen egunkari hau betetzeaz arduratuko dira. Koadernoak etxera eramanez ahal izango dute, eta bertan jasoko dituzte saioen laburpenak, ondorio nagusiak, ikasitakoak, anekdota azpimarragarriak, esperientzia honetan sortutako sentimenduak... Gertaturikoa gogora ekartzeak eta koadernoan idazteak edo irudi bidez adierazteak eskatzen du ikasgelan hausnartutakoa eta hitz egindakoa pentsatzea, zehaztea eta sintetizatzea, eta beraz, ariketa horren bidez, ezagutzak eta ikasketak finkatu eta barneratuko ditugu.

Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren ikasgelako esperientziak ekarri du bidaia-koadernoaren edo saioetako egunkariaren aplikazioak ugaritzea:

Bidaia-koaderno saioei hasiera emateko

Programak jarraikortasuna eta koherentzia izan dezan, komeni da saioaren hasieran aurreko saioan egindakoa gogora ekartzea. Koadernoak erabiltzen baldin badugu, irakurketa horrekin hasiko gara.

Bidaia-koaderno saioak ixteko

Metodologiako atalean adierazi bezala, saioak ixteko modu egokia da egindako lana laburtzea. Egokia izan daiteke laburtzea edo denon artean ondorioren bat ateratzea, adjektibo bat jartzea etab. Irakasleak galdera bat egin dezake helburu hori lortzeko eta erantzuna bidaia-koadernoan jasoko dugu:

- Zer izan da gehien harritu zaituena?
- Esandako guztitik zer iruditu zaizu interesgarriena?
- Zer ikasi duzu?
- Zer egin dugu?
- Zer gai landu ditugu?
- Zeri buruz hitz egin dugu?



Bidaia-koaderno saioaren erregistroa egiteko baliagarri izateko beste formula bat izan daiteke ikasleek saioan zehar argazkiak ateratzea helburu hori buruan edukita, eta ondoren koadernoan itsastea (edo emaitzen argazkiak ateratzea: panelena, plastikako lanena...).

Hiruhilekoan zehar bidaia-koaderno erabili ez bada edo oso gutxi erabili bada, bukaeran egiten den errepasso saioan erabili daiteke. Hiruhilekoan zehar egindako lana gogora ekartzerakoan, informazio hori bidaia-koadernoan jasotzeko moduan formulatu dezakegu eta norbait hori idazteaz arduratu.

6. mailako irakasle batek, adibidez, hiruhilekoa ixteko eta errepasso egiteko egunean, guztion artean landutako gaiak zerrendatu ostean, haurrak taldetan jarri eta gai bat aukeratzeko eskatu zien. Gai horri buruz landutakoa gogoratu eta idatzi zuten lantaldetan, eta, gela osoaren aurrean egindakoaren laburpenak komunean jarri eta adostu ostean, bidai-koadernoan itsatsi zituzten.

Urtez urte egiaztatu ahal izan dugu hurrei gozamen eta poz handia eragiten diela egindako lana eta ikasitako guztia gogoratzea eta errepassatzea, hortaz, egiazta dezakegu bidaia-koaderno formula ona dela berrikuspen horiek egiteko.

Irudi bidezko ebaluazioa

Ebaluatzeak, etimologikoki, balioa adieraztea, estimatzea eta aintzat hartzea esan nahi du. Balioa gauzen nolakotasun bat da, beharrak asetzeko edo ongizatea emateko gaitasun-maila. Ebaluatzea izan daiteke zerbaitek nola ase gaituen estima dezakeen prozesu mentala. Asetze horren atzean jakin-mina, gosea edo bete nahi den helburu bat egon daiteke, eta hor topa dezakegu ebaluazioaren izateko arrazoia.

Ebaluazioa guretzat hezkuntza-egoera *aztertze*ko baliabidea da, lanaren, prozesuaren edo emaitzen *hausnarketa* eta *ikerkuntza*. Ebaluazioa, beraz, ez da helburu bat bere horretan izan behar, ezta lan-prozesu bat sintetizatzeko edo ixteko balio duen jarduera bat ere, egoki deritzogun guztietan hezkuntza-praktikan sartuko dugun tresna bat baizik, betiere ikasle eta irakasleentzako orientazio-metodo gisa egokia iruditzen zaigunean. Haurrak elkar hobeto ezagutzeko baliagarri izango da, kokatzen lagunduko baitie eta baita egindako lana modu objektiboan interpretatzen eta baloratzen ere (esan dezakegu irudi bidezko ebaluazioa autoebaluazioa ere badela). Irakasleei orientazio gisa ere baliagarri izango zaie, beharrezkoa baita jakitea hurren ikasketa-prozesurako planteatutako helburuak betetzen ari diren. Hezkuntza-prozesua ahalik eta eraginkorrena izatea nahi badugu, ezinbestekoa da gertatzen ari dena jakinarazteko gaitasuna izatea.

Nola ebaluatu?

Probak puntuatzeko zenbakiak edo letrak erabiltzen ziren molde tradizionalekin hausteko, irudi bidezko ebaluazioan, ebaluatze jarduera zerbait dinamikoa, sortzailea eta ludiko izatea bilatzen da. Ebaluaketa-pentsamendua pizteko tresna gisa, hitzak sortzeko irudiak proposatzen dira (koadroak, marrazkiak, koloreak, paisaiak, sinboloak... eta baita testurak, soinuak eta halakoak ere). Oinarrian dugu ebaluatu nahi dugunaren eta alderaketarako erabiliko dugun elementuaren arteko erlazioa; xehetasunak behatu eta helburuak zein diren jakin ondoren, irizpideak ezarri beharko ditugu eta bilatu bat etortzeak, bat ez etortzeak, antzekotasunak, desberdintasunak...

Ebaluaketak arrakasta izan dezan, beharrezkoa da argi eta garbi adieraztea zer den ebaluatu behar duguna. Jarraian erabiliko ditugun irudiak erakutsiko ditugu, eta horien esanahia denon artean errepasatuko dugu. Haur txikiekin irudi bidezko ebaluazioa egiten hasten garenean, oinarritzko irudiak hautatuko ditugu; haurrentzat esanahia ezaguna duten irudiak izango dira (adibidez, aurpegi triste bat eta aurpegi irribarretsu bat) eta bi edo hiru aukera eskainiko dizkiegu. Haurrek irudietako bat aukeratuko dute, eta horretarako izan dituzten arrazoiak azalduko dituzte.

Ikasleak prozesua ezagutzen eta horretara ohitzen diren heinean, irudi kopurua eta zailtasuna handitzen joango gara. Handiak direnean, adibidez, esanahi zehatz bat ez duten irudi abstraktuak erabili ahal izango ditugu.

Zer ebaluatu?



Hezkuntza prozesua osatzen duen gauza oro ebaluatu daiteke; edukiak, prozedurak nahiz jarrerak. Ebaluatzeko objektua, gogoeta egiteko informazioa jaso nahi dugun edozein elementuri buruzkoa izango da. Taldearen arreta-maila izan daiteke, edo kontzeptu zehatz batzuen ezagutza, edo sentimenduak, erabilitako baliabideak, saioaren erritmoa, taldeko kideen arteko errespetua, autonomia etab.

Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programan ebaluaketarako hainbat irudi- eta objektu-aukeraketa proposatzen dira, hezkuntza-ziklo bakoitzari zuzenduak. Ikertzeren webgunean, www.ikertze.org orrian aurkituko dituzue.

Jarduera interesgarria izan al da?



Nola sentitu zara?



3. IKASGELARAKO JARDUERAK

3.1. Sarrera

3.1.1. Programazioa

3.2. Hasierako zikloa: nortasuna

3.2.1. Programazioa

3.2.2. Jarduera-fitxa: ni nor naiz

3.2.3. Jarduera-fitxa: nire gorputza, nire etxea

3.3. Erdi-mailako zikloa: kooperazioa eta garapena

3.3.1. Programazioa

3.3.2. Jarduera-fitxa: zaharren egoitzara bisita

3.3.3. Jarduera-fitxa: beldurra

3.4. Goi-mailako zikloa: bizitza eta gatazka

3.4.1. Programazioa

3.4.2. Jarduera-fitxa: aurreiritziak

3.4.3. Jarduera-fitxa: animalia bat ikasgelan

3.5. Gorputz-hezkuntzan lantzeko jarduerak

Sarrera

3.1. Sarrera


Marko teorikoaren sarreran adierazi bezala, programako jarduerak diseinatzeko kontuan izandako erreferentzia argi bat Haurren Eskubideen Hitzarmena izan zen. Hitzarmeneko artikulak 4 bloketan multzokatuko ditugu, nortasun eskubidea, garatzeko eskubidea, bizitzeko eskubidea eta parte hartzeko eskubidea programa guztiaren ardatz transbertsal gisa. Blokeetako bakoitzean landu beharreko edukiak definitu genituen, eta zegokion zikloan kokatu, Lehen Hezkuntzako helburuei, gaitasunei eta curriculumari erantzunaz. Horren emaitza gisa, nortasun eskubidea lehen zikloan ezarri zen; garatzeko eskubidea, bigarren zikloan, eta bizitzeko eskubidea, hirugarrenean.

Urte hauetan zehar, gure helburua irakasleen lana erraztea izan da, Lehen Hezkuntza guztirako programazio sekuentziatu eta koherente bat egitea. Horrexegatik bereziki saiatu ginen edukiak ireki eta itxiko zituen programazio-egitura bat bilatzen; bukle baten gisa, gaiak, ikuspegi desberdinetatik, berriro ere landu daitezke.

Modu horretan, aurkezten dizuegun programazioa eratu dugu; ziklo bakoitzak urteko bi programa ditu, eta urteko programa bakoitza hiru bloketan banatzen da, hiruhileko bakoitzeko bat.

Lehen hiruhileko jardueratan, saioen funtzionamendu onerako arauak ezartzen dira, gatazkak konpontzeko protokolo bat, eta landu beharreko gaia aurkezten da. Edukiak finkatzeko berrikuspen-saio batekin amaitzen da hiruhileko bakoitza. Lehenengo bi zikloetako azken hiruhilekoan beste herrialde batzuei erreparatuko diegu, gure ikuspegia zabaltzeko eta errealitate desberdinak ezagutzeko.

Gure helburua izan da eredia jarraitzeko programazio bat -eskolak eskatzen duena bezalakoa- programa-proposamen ireki batekin konbinatzea, ikasketa- testuingurua abiapuntu duena. Beraz, azken ikasturtean, hezitzaileak erabakiko du zer jarduera egin eta noiz, ikasgelako esperientzian zehar sortzen diren beharren arabera.



irudia

ni nor naiz?

desberdina

kultura

berdina

planeta

auzoa

familia

ingurunea

kultura

herria

hizkuntza

desberdina

auzoa

izena

familia

lagunak

Hasierako zikloa

Nortasuna

eskubidea

kultura

izena

eskubidea

diskriminazioa

gaitasuna

desberdina

kultura

ni nor naiz?

hizkuntza

irudia

auzoa

planeta

izena

gaitasuna

ingurunea

herria

auzoa

kultura

kultura

hizkuntza

lagunak

familia

irudia

eskubidea

diskriminazioa




3.2. Hasierako zikloa: Nortasuna

Nortasunak egiten gaitu garen bezalakoak; eskubide honen formulazioaren arabera, haur orok du eskubidea izen bat, familia bat, kultura bat, erlijio bat, hizkuntza bat edukitzeko, eta modu askean pentsatzeko eta iritzia emateko.

Kontzeptuarekiko lehen hurbilketa batean, edukien aurkezpen gisa, kide bakoitzak poltsa batean sartuko ditu bera den bezalakoak izatea egiten duten elementuak. Hortik abiatuta eta programak aurrera egiten duen heinean, gure irudia eta etorkizunerako ditugun ametsak gure nortasunaren zati garrantzitsua direla ikusiko dugu. Pertsonak gara; identifikatzen gaituen izen bat dugu; familia zehatz batean eta kultura transmititzen digun planetako leku zehatz batean jaio gara, nahiz eta jakin badakigun familia eta kultura mota desberdin asko daudela. Sentitzeko eta pentsatzeko gaitasunarekin jaiotzen gara, eta gauzak egiteko eta gu geu garatzeko energiarekin. Nortasuna diskriminazio-foku izan daiteke, baina pertsona guztiak jaiotzen gara eskubide horrekin eta beste batzuekin, eta horiek errespetatzeko erantzukizuna dugu.

Amaitzeko, begirada bat munduari: Miquel Barcelóren eskutik Afrikara hurbilduko gara. Maliko biztanleek gurearen aldean oso errealitate desberdina bizi dutela, baina guk bezala irudi zehatz bat dutela ikusiko dugu, izen bat, familia bat, kultura bat... Haiek ere sentitzeko eta pentsatzeko gaitasunarekin jaiotzen dira, eta gauzak egiteko eta bizitzeko energiarekin, eta gure eskubide berberak dituzte.



3.2.1 Programazioa

	LEHEN IKASTURTEA	BIGARREN IKASTURTEA
1. HIRUHILEKOA	Programaren aurkezpena eta elkarrizketarako arauak. Power Point aurkezpen batean ikusiko ditugu ikasturtean zehar landuko ditugun edukiak; eta saioak behar bezala funtzionatzeko arauak adostuko ditugu. Gatazken konponbidea. Gatazkek bizikidetzaren zati bat direla ulertzeko eta modu positiboan eta egokian konpontzen ikasteko, konponbiderako espazio bat sortuko dugu. Ni nor naiz. Poltsa bat erabiliko dugu nortasunari buruz hitz egiteko, jakiteko, haurren ustez, zerk egiten dituen diren bezalakoak izatea. Amaiera. Errepasoa.	Programaren aurkezpena eta elkarrizketarako arauak. Power Point aurkezpen batean ikusiko ditugu lehen hiruhilekoan landuko ditugun edukiak, eta saioak behar bezala funtzionatzeko arauak berrikusiko ditugu. Gatazken konponbidea. Gatazken konponbiderako espazioa berrikusi eta sortu. Haurren eskubideak eta erantzukizunak. Haur guztiek dituzte eskubideak: HEHren azterketa eta erantzukizunak. Plastikan marraztuko ditugu eskubide eta betebeharrak horiek eduki beharko lituzketen haurrak. Amaiera. Errepasoa.
2. HIRUHILEKOA	Nire irudia. Gure irudia gure nortasunaren parte garrantzitsua da; plastikan, argazki-kamerarekin erretratuak aterako ditugu eta triptikoak egin. Izenak eta pertsonak. Denok dugu identifikatzen gaituen izen bat; gure izenaren historia zein den deskubrituko dugu eta akrostikoak egitera jolastuko dugu. Munduko familiak. Egun familia mota ugari daude; horri buruzko hausnarketa egingo dugu irudietatik abiatuz, eta ikusiko dugu zer duten berdina eta zer desberdina. Ni eta nire planeta. Google Earth erabiliz, unibertsoetik gu bizi garen lekura hurbilduko gara; zer taldetako partaide garen jabetzen saiatuko gara: auzoa, herria, probintzia, herrialdea, planeta. Amaiera. Errepasoa.	Aukeren zuhaitza. Zeinek/zerk laguntzen digu gure gaitasunak garatzen? Aurreko ikasturteko zuhaitza hartuko dugu ikusteko nola hazi diren hosto berriak eta aztertzeke zeinek laguntzen digun gure gaitasunak garatzen. Nire gorputza, nire etxea. Argazki bidezko animazioekin sentimendu berriak deskubrituko ditugu, eta pentsamenduaren inguruan hausnarketa egingo dugu, "buruarekin egiten dugunaren" inguruan. Ondorioekin metaforak egingo ditugu. Kultura. Jaiotzen garen eta garatzen garen kulturak eragin zuzena du gure nortasunean; kontzeptu horren esanahia arakatuko dugu; eta plastikan ikusiko dugu kultura desberdinak daudela. Amaiera. Errepasoa.
3. HIRUHILEKOA	Nire gorputza, nire etxea. Sentitzeko eta pentsatzeko gaitasunarekin eta bizitzeko energiarekin jaiotzen gara. Jarduera honetan sentimenduak izango ditugu ardatz; horietako batzuk identifikatuko ditugu, eta izena eta aurpegia jarriko diegu. Aukeren zuhaitza (gaitasunak) Autoestima eta konfiantza landuko ditugu, horretarako gure taldeko zuhaitzaren hostoetan jarriko ditugu gu egiteko gai garen gauzetako batzuk eta, enborrean, egunen batean egingo ditugunak. Amaiera. Errepasoa.	Ahatetxo itsusia. Ipuinak nortasunari buruz eta diskriminazioari buruz hausnartzeko abiapuntua izango dira. Nortasunen topaketa. Barcelónen Afrikako irudi batekin Malira hurbilduko gara, eta beste nortasun batzuei buruz hitz egingo dugu -zertan garen desberdinak eta zertan berdinak-, elkarrizketarako eta plastikarako hainbat proposamenen bidez. Amaiera. Errepasoa.

3.2.2 Jarduera-fitxa: ni nor naiz

PROGRAMAREN HELBURUA: jakitea haurren ustez, zerk egiten duen beraiek diren bezalakoak izatea; nortasun kontzeptuaren inguruan hitz egitea.

GARAPENA

Gaur geure buruaz hitz egingo dugu, geure gauzez, norberaren gauzez. Gure bizitzan garrantzitsua iruditzen zaigun horretaz hitz egingo dugu, gustuko dugunaz, ezinbesteko zaigunaz, garen bezalakoak izaten laguntzen digunaz, desberdin egiten gaituenaz...

Plastiko gardena duen eta itxi daitekeen poltsa batean, haur bakoitzak marrazkiak, hitzak, objektu pertsonalak edo bera izatea egiten duten gauzak sartuko ditu (adibidez, bere izena, familiako argazki bat, bere lagunen izenak etab.). Panel batean jarriko ditugu bakoitzaren izenarekin eta irekita geratuko dira edukiak aldatzen joateko: gauza gehiago ekar ditzakete, dagoeneko barruan daudenak kendu etab. Kolorezko kartulinak erabil ditzakegu panela egin eta izenak idazteko. Onena izango litzateke panela denen artean pentsatu eta egitea, eta poltsen ondoan haien argazkiak itsastea.

Arbelean, gu geu garen bezalakoak izatea egiten gaituzten gauzak idatziko ditugu. Horretarako poltsaren ariketa erabiliko dugu. Adibidez, norbaitek bere izena paper batean jarri badu eta poltsan sartu badu, arbelean "izena" hitza idatziko dugu, edo norbaitek familiako argazkia sartu badu, arbelean "familia" idatziko dugu etab.

Amaitzeko, adieraz dezakegu jaso ditugun hitz horiek guztiek beste elementu batzuekin batera gure NORTASUNA osatzen dutela, eta nortasuna munduko haur guztien eskubide bat dela.

AMAIERA

Neska-mutilek egin nahi dituzten aldaketak egiteko moduan utziko dugu poltsadun panela. Noizean behin, hurrengo saioetan, begirada bat botako diogu nola dagoen ikusteko. Arbeleko zerrenda bidaia-koadernoan jasoko dugu.

BEHARREZKO MATERIALA

Kolorezko kartulinak panelak egiteko (eta haur bakoitzaren izena idazteko). Plastikozko poltsak eta txintxetak (poltsak panelean itsasteko). Neska-mutilen argazkiak. "Nortasuna" kontzeptua erdian duen panel bat eta kolorezko postit-ak (horietan idatziko dugu poltsetan sartutakoa) edo arbela.

IRAKASLEEK DIOTE

Asun Aranburu, Koldo Mitxelena Herri Ikastetxeko lehen hezkuntzako lehen mailako irakaslea.

Aukeratu dudan jarduera oso interesgarria eta motibatzailea iruditu zait; egin aurretik jarritako helburuak bete egin direla pentsatzen dut. Ni oso ondo sentitu naiz lan honetan, hasieratik ikasleek oso ondo erantzun dutelako. Modu atsegin batean egin dugu lana eta eroso sentitu gara.

Lehenengo saioan gaia aurkeztu nien, zein izango zen gure lana, nola egingo genuen... Horretarako behar genuen materiala honako hau zen: folioak, margoak, argazkiak eta plastikozko poltsatxo batzuk gure lanak sartzeko. Saio honetan poltsa bana eman nien etiketa bat itsatsita; han izena jarri zuten, eta nahi zuten bezala apaindu zuten.

Bigarren saioan arbelean apuntatu nituen beraien ideiak (pista batzuk eman ondoren): zerk egiten gaitu ezberdinak: gure izena, familia, lagunak, maskotak, gustuko tokiak, janariak, jostailuak, ipuinak... eta lanean hasi ginen. Paper zatietan (folio erdian) beraien izen-abizenak idatzi zituzten; beste paperetan familien marrazkia, lagunak etab. egin zituzten eta poltsan sartu.

Hirugarren saiorako batzuk argazkiak ekarri zituzten poltsa osatzeko eta bigarren saioan hasitako lanarekin jarraitu genuen. Laugarren saioan bakoitzak bere poltsa barruan zituen gauzak erakutsi eta azaldu zizkien besteei.

Saio guztietan ikasleek ilusioa eta gogoazazaldu dute; arreta jarri dute, eta interesa azaldu dute. Poltsa altxor bat izango balitz bezala jaso dute. Lehenengo egunetik etxera eramanez nahi zuten gurasoei erakusteko.

Poltsa ikasturtea bukatu arte joan gara betetzen eta azken egunean lanak eramateko orduan hasierako ilusioarekin eramanez dute. Emaitzarekin pozik gelditu gara.



3.2.3 Jarduera-fitxa: nire gorputza, nire etxea

PROGRAMAREN HELBURUA: saio honetan barruan daramatzagun gauzei buruz hitz egingo dugu, gu geu izaten laguntzen digutenak: pentsamenduak/emozioak eta energia.

GARAPENA


“Nire gorputza, nire etxea” Power Pointak (eskuragarri duzue www.ikertze.org webgunean) lagunduko digu pertsona guztiek dugun sentitzeko, pentsatzeko eta egiteko gaitasunari buruz hitz egiten.

SENTIMENDUAK

Elkarrizketarako proposamena.

Sentimenduei buruz hitz egiteko, webgunean (www.ikertze.org) proiektatzeko hiru argazki-multzo eta animazio ditugu, sentimendu bakoitzarentzat bat. Jarraian horiek ikusteko proposamen metodologiko bat egingo dugu (irakasle bakoitzak taldearen arabera antolatuko ditu saioak; eguneko animazio bat edo bat baino gehiago ikus daiteke):

1. Ezer esan gabe animazioa pixkanaka ikusi ondoren, galdera hau luzatuko dugu: Zer dute komunean argazki horiek? Haurrek izenburua ikusi ez dezaten saiaturako gara, argazkietan ematen diren sentimenduen aukera desberdinak aztertu eta hauen arteko elementu komunak zein diren asmatu ditzaten.
Argazkiak bukatzen direnean, testuaren animazioa agertu aurretik proiektorea geldituko dugu; hurrei galdetuko diegu ea argazkietan zer sentimendu uste duten islatzen dela.
2. Argazkiak berriro ere ikusiko ditugu amaierako animazioarekin batera. Guztion artean maitasuna, amorrua edo beldurra (ikusi dugun animazioaren arabera) egokien irudikatzen duen argazkia zein den erabakiko dugu eta aukeraketa honen arrazoiak emango ditugu. Gure esperientziei buruz hitz egin dezakegu, eta guretzako sentimendu horren adierazgarri diren eta faltan botatzen ditugun irudiak proposa ditzakegu.
3. Maitasuna, beldurra edo amorrua eragiten diguten egoera eta gauzez ere hitz egin dezakegu.



PENTSAMENDUA

Haurrei oso zaila egiten zaie ulertzea zer den pentsatzea, gogoratzearekin erlazionatzen dute. Irakasle batek haurrei proposatu zienean pentsatzen egiten ditugun gauzei buruzko elkarrizketa bat, haurretako batek erantzun zuen "jolastea", eta ziur ote zegoen galdetzean erantzun zuen "bueno, zertara jolastu erabakitzea".

Pentsatzen ari diren pertsonen irudiak bila ditzakegu (argazkiak, pinturak edo eskulturak). Haurrei proposa diezaiekegu bilduma horretan haiek marraztutako pentsatzen ari diren pertsonak sartzea, burua erabiltzen ari diren pertsonak. Oso konplikatu iruditzen baldin bazaigu neska-mutilek marrazki horiek egitea, proposa diezaiekegu paper batean idaztea burua erabiliz egiten ditugun gauzak.

Elkarrizketarako proposamena

Bildutako irudiak eta hitzak komunean jarri eta irakasleak irudi bitxi bat sartuko du, adibidez, pertsona bat lotan, animalia bat begira, bi pertsona elkarri musu ematen... (ona da irudi bitxi bakarra egotea, ez izatea asko). Galdetuko dugu ea baden geure arreta bereganatu duen ezer, edo harritu gaituen ezer, edo ba al den komentatzea gustatuko litzaigukeen ezer. Neska-mutilen proposamenak arbelean idatziko ditugu, eta hitz egiten nondik hasiko garen erabakiko dugu. Ondo badoakigu, honako galdera hauek egin ditzakegu: Pertsona guztiek pentsatzen dute? Egunez gauez baino gehiago pentsatzen dela uste duzue? Zergatik? Zakurrek eta landareek pentsatzen dute? Badira pentsatzen ari ez garen momentuak? Zure ustez gorputzak zer gauza egiten ditu pentsatzeko beharrik gabe?

Ixteko, hitz egindakoa laburtuko dugu, eta hitzekin eta irudiekin pentsatzeko panela prestatuko dugu, buruarekin egiten dugun gauzen panela. Elkarrizketan sortu diren ideia berriak sartuko ditugu, edo gurasoei galdetu ostean etxetik dakartzatenak.

Proposamen grafikoa

Oinarri gisa pentsatzeko paneleko hitzak hartuta, metaforak presta ditzakegu. Esaldi bakoitzari "bezala da" eta hiru puntutxo gehituko dizkiogu haur bakoitzak esaldia osa dezan: "Pentsatzea... bezala da", "Imajinatzea... bezala da", "Gogoratzea... bezala da", "Irakurtzea... bezala da". Denon artean erabaki dezakegu zer hitzekin egin lanak, kaxa batean sartu eta bakoitzak bat aterako du marrazteko.

"BEZALA DA" hitzak prestatuko ditugu ordenagailuaren bidez, denok tipologia bera izan dezagun. Adibidez: "irakurtzea" hitza atera baldin badut, I R A K U R T Z E A letrak aldizkari batean topa ditzaket, edo hori irudikatzen duen irudi bat; ondoren, tarte bat utzita BEZALA DA itsatsiko dugu, eta esaldia osatuko dugu hitzak edo irudiak erabiliz: "**irakurtzea isiltasunean bidaiatzea bezala da**".

Euskarri gisa txartel forma duten kartulinak prestatuko ditugu (denak tamaina berekoak), eta horrela emaitzak josi eta azaleztatu ditzakegu **Gorputza, pentsamenduen etxea** liburua egiteko. Hitzak asma ditzakegu baten amaiera beste baten hasierarekin elkartuta, eta asmatutako hitzari esanahia emanaz: IRUGOGO: irudien bidez gogoratu.



ENERGIA

Ezinezkoa litzateke egiten dugun guztia energiarik gabe egitea. Jarduera hau zer egiteko gai garen jabetzeko bideratua dago, orain gai ez izan arren, zer egiteko gai izango garen eta hori lortzen zerk edo zeinek lagun diezagukeen jakiteko. Horrela lagun diezaiekegu haurrei beren buruarekiko begirada positiboa izaten autoestima eta konfiantza lortzeko.


Plastikako proposamena

Ikasle bakoitzari zuhaitz bat marrazteko eskatuko diogu, eta denok elkarrekin emaitzak ikusiko ditugu (antza baduten edo ez, zergatik, zer duten komunean...). Ziurrenik zuhaitz estereotipoa izango dira gehienak: zuhaitz piruleta.

Zuhaitzen Power Pointean (www.ikertze.org webgunean eskuragarri dagoena) ikusiko dugu zenbat zuhaitz desberdin dauden; enborrari eta adarrei izena emango diogu, eta gure zuhaitzak berriro ere marrazteko balioko digun jolasaren araua sartuko dugu: adar bakoitzetik nahi adina adar atera daitezke, baina horietako bakoitza aurrekoa baino finagoa izan behar da.

Bakarkako lana

Folioak edo kartulinak, hainbat lodieratako errotulagailuak edo hainbat zabaleratako kartulinak ditugu, eta gure zuhaitzak eraikiko ditugu aurrez formulatu dugun arau hori jarraituz.



Talde-lana

Gure taldearen aukeren zuhaitza egiteko paper bilgarria edo kartulina handiak izango ditugu. Ikasgelako kideak adina adar izan beharko ditu. Zuhaitza egindakoan, haur bakoitzak bere izena eta argazkia adar batean jarriko du.

Elkarrizketarako proposamena

Gure gaitasunei buruz hitz egingo dugu; lehenik eta behin, haurrei eskatuko diegu pentsatzeko egiteko gai ez diren zerbait. Hausnar dezakegu ea emandako erantzunak egiteko ezinezkoak diren edo, besterik gabe, oraindik ez dutela horiek egiteko gaitasunik.

Egin ditzakegun gauzetan pentsatuko dugu; banan-banan esango ditugu, zerrenda bat egingo dugu...


Plastikako proposamena

Paper desberdinetan gure zuhaitzerako hainbat hosto egingo ditugu. Handiak izan behar dira, haietan gero gure gaitasunak idatziko ditugulako. Ordenagailura pasako ditugu egin ditzakegun gauzak (aipatu ditugun horiek), eta haur bakoitzak gure adarretarako egin ditugun hostoen gainean jarriko du testua. Adibidez, ibiltzeko gai naiz, lagun ona izateko gai naiz, sokasaltoan aritzeko gai naiz...

- Oraindik egin ezin ditzakegun gauzak eta egitea gustatuko litzaigukeenak, postitetan idatz ditzakegu eta zuhaitzaren enborrean itsatsi, eta lortzen ditugun heinean, edo horiek egiteko gai garenean, hosto bihurtuko dira.

- Haurrek beren kideen adarretan ere marraz ditzakete hostoak, eta kideengan ikusten dituzten gaitasunak idatzi.

Zuhaitza gelan utziko dugu, eta, noizean behin, errepaso bat emango diogu ikusteko zer egoeratan dauden lortu nahi genituen gauzak (postitetan idatzitakoak).



AMAIERA

Bidaia-koadernoan jasoko dugu egindakoa, harritu gaituena edo ikasi duguna.

BEHARREZKO MATERIALA

Power Pointak eta animazioak (amorrua, beldurra eta maitasuna), ordenagailua eta proiektorea, aldizkariak, egunkariak, papera, arkatzak, errotulagailuak, kartulina handiak moztuta panela egiteko, estraza papera.

IIRAKASLEEK DIOTE

Pili Intxauspe, Koldo Mitxelena Herri Ikastetxeko lehen hezkuntzako 2. mailako irakaslea.

Irakaslea: "Gure gorputza gure etxea da. Etxeari buruz hitz egiten dugunean ez dugu bakarrik esaten kanpotik nolakoa den baizik eta esaten dugu barruan zer dagoen, nolakoak diren bizi diren pertsonak, elkarrekin ondo eramaten diren..."

Gorputzari buruz hitz egiten dugunean, normalean, kanpoko itxurari erreparatzen diogu. Adibidez: polita ala itsusia den, altua edo baxua den, ile luzea edo motza duen, begiak...

SENTIMENDUAK

Baina gaur barruan sentitzen dugunari erreparatuko diogu.

Gogoratzen zarete iaz nola landu genituen sentimenduak?

Ikas.: bai, sentimenduak dira pozez gaudenean, triste gaudenean, beldurra, haserrea, maiteminduta, lotsa...

Elkarrikeria berotzen hasi da, denek parte hartu nahi dute.

Irak.: orduan, zer esan dezakegu direla sentimenduak?

Ikas.: bihotzean sentitzen duguna: poza, tristura, amorrua, alaitasuna...

Irak.: bakoitzak aukeratuko du sentimendu bat, eta esaldi bat osatuko du.

Ikasleak:

- Urduritasuna: opari bat jasotzen dudanean urduritasuna sentitzen dut.
- Amorrua: eskolan jolasten haserretzen naizenean eta nire lagunak jotzen didanean, amorrua sentitzen dut.
- Poza: nire amak musu bat ematen didanean poza sentitzen dut.
- Alaitasuna: nire anaiarekin jolastea alaitasuna da.
- Tristura: gaizki portatzean triste sentitzen naiz.
- Maitasuna: nire amak musua ematen didanean maitasuna sentitzen dut.

Irak.: sentimendu guztiak baikorrak dira?

Ikas.: ez, batzuk gaizki sentiarazten digute: amorrua, tristura...

Ikasleak ohartzen dira sentitzeko bihotza erabiltzen dutela.

PENTSAMENDUA

Irak.: esan dugu bihotzarekin sentitzen dugula, baina pentsatzen dugunean zerekin pentsatzen dugu?

Ikas.: burua erabiltzen dugu pentsatzeko.

Irak.: zer gauzak egiten ditugu burua erabiliz eta pentsatzen badugu?

Ikasleak:

- Jolasa aukeratzea.
- Zer dantza egingo dugun.
- Zer gosalduko dugun prestatu (erabaki zer gosalduko dugun).
- Zer idatzi nahi duzun.
- Koadro artistiko bat nola egin.
- Nola egin, eraiki, etxe bat.
- Eskultura bat nola egin.
- Nire gauzak non dauden jakiteko (nire gauzak non utzi ditudan gogoratu).

ENERGIA

Irak.: bai pentsatzeko eta bai sentitzeko indarra behar dugu, energia behar dugu, nondik hartzen dugu?

Ikasleak:

- Ondo elikatzen banaiz, energia lortzen dut.
- Kirola egiten dudanean, energia lortzen dut.
- Maitatzen didatenean, energia lortzen dut.
- Sentimendu baikorrek (poza, alaitasuna, maitasuna, laguntasuna) energia ematen didate.
- Ondo egiten ditudanean gauzak (ditudan gaitasunak); horrek energia ematen dit.

Jarduera aurrera doan heinean, ikasleak inplikatuagoak daude eta ni pozik eta gustura. Jarduera interesgarria bihurtzen ari da, eta ikasleengan gehiago erreparatzea eskatzen dit. Nork zer esaten duen kontuan edukitzea aberasgarria egiten du. Ikasleak gehiago ezagutzeko aukera ematen dit.

Emaitzekin oso gustura gelditu naiz. Batetik, ikasle bakoitzari buruz gauza gehiago ikasi dudalako. Bestetik, ikasleak bere buruarekiko ezagutza handitu dutelako, ikasleek sentitzen dutena kanporatzeko aukera izan dutelako eta, era berean, hobeto ulertzeko aukera eman dielako.

Jarduera egin aurretik nire helburua ikasleak hitz egiteko une lasai bat izatea zen, benetan sentitzen dutena kanporatzeko aukera izan dezaten. Aukera ederra izan da. Ikasleek, lasai, pentsatzen dutena kanporatu dute. Eraman ditudan sorpresak oso baikorrak izan dira. Heldutasun handiagoarekin hitz egin dute, eta zentratuagoak egon dira.

Jarduera oso interesgarria iruditu zait, sentimenduak eta pentsamenduak gure harremanetan oso presente daudelako: pertsonaren izaeran, nortasunean... Garen bezalakoak egiten gaituzte.

Jardueraren alderdi positiboak izan dira

- Ikasleen partaidetza.
- Hitz egiteko une bat izatea.
- Sentimendu desberdinak daudela ikastea eta izena jartzea.
- Norberaren sentimenduak hobeto ulertzea.
- Besteei hobeto ulertzeko aukera eskaintzea.
- Pentsatzen duguna eta sentitzen duguna batzuetan bat ez datozela ohartzea.



gorputza sentimendua bilakaera

hazi beldurra pentsamendua alaitasuna

inbidia hazi ohitura osasungarriak

alaitasuna haurtzaroa gorputza

aldaketa

amorrua

eskola

GKE

Erdi-mailako zikloa
kooperazioa eta garapena

laguntza

elikadura

bilakaera

eskola

hazi

beldurra

sentimendua

ohitura osasungarriak

haurtzaroa

aldaketa

gorputza sentimendua

amorrua

hazi

elikadura

inbidia

bidaiak

laguntza

eskola

alaitasuna

bilakaera

GKE

pentsamendua



3.3. Erdi-mailako zikloa: Kooperazioa eta garapena

Pertsona guztiak gara gizakien espeziekoak; planeta bat partekatzen dugu, eta, beraz, eskubide eta betebeharrak batzuk ditugu. Lehen zikloan ikusi genuen izateko eskubidea dugula, izen bat, familia bat, kultura bat, hizkuntza bat eta halakoak izateko eskubidea, eta beste pertsonak, kulturak, hizkuntzak etab. errespetatzeko betebeharra. Garatzeko eskubidea ere badugu: bizitza duina izateko, hezkuntza jasotzeko, medikuen zaintza jasotzeko eta jolasteko eskubidea.

Bigarren zikloko programaren sarreran, ikusiko dugu pertsonak geure garapenean, hainbat fasetatik pasatzen garela. Momentu zailak eta lasaiak dituen bidaia bat bezala da; ustekabeak izan ditzake, ezustekoak, ahalegina... Zaharren egoitza batera joango gara denbora luzez bizi izan diren pertsonekin hitz egitera, eta galdetuko diegu ea beraientzat, momentu honetan, zer den benetan garrantzitsua.

Pertsonak garen neurrian gure gaitasunak garatzeko eskubidea dugu; sentitzeko eta pentsatzeko gaitasuna eta gure gorputza eta energia garatzeko gaitasuna. Alderdi horiek sakonduko ditugu, nola hobetu eta zaindu ditzakegun ikusita. Elikadura eta ohitura osasuntsuak aztertuko ditugu. Munduko beste herrialde batzuetako ikasleak eta irakasleak ezagutuko ditugu, eta gizakiaren alderdi emozionalaren inguruan hausnartuko dugu.

Amaitzeko, munduari begirada bat: Indiara egingo dugu bidaia, Kalkutara, dokumental baten laguntzarekin; denok oinarritzko behar berak ditugun pertsonak garela ikusiko dugu. Errealitate desberdinetan bizi gara, eta errealitate horiek, kasu askotan, ez dute uzten beharrak behar bezala asetzen. Milurteko helburuak ezagutuko ditugu, eta baita ere beste herrialde batzuk garatzeko kooperazioan lan egiten duten GKEen lana.



3.3.1 Programazioa

	HIRUGARREN MAILA	LAUGARREN MAILA
1. HIRUHILEKOA	Programaren aurkezpena, elkarrizketarako arauak eta gatazkak konpontzeko metodologia. Ikasturtean landu beharreko edukien aurkezpena. Saioak behar bezala funtzionatzeko arauak adostuko ditugu, eta gatazken konponbiderako espazioa sortu edo berrikusiko dugu. Haurren eskubideak. Nortasun eskubidea berrikusi. Pasa den ikasturtean landutako edukia Power Point batekin berrikusiko ditugu, eta plastikan siluetaren jolasa egingo dugu. Garapenari buruz hitz egingo dugu. “Garapena” kontzeptuaren esanahia ulertzen saiatuko gara; eskubide gisa aztertuko dugu, eta horrek dakartzan erantzunkizunak ikusiko ditugu. Garapena laguntzen eta oztopatzen duena. Hiru landareekin egingo dugun ariketa: bakoitza modu desberdinean zainduko dugu, eta horrekin gogoeta egingo dugu jakiteko zerk laguntzen eta oztopatzen duen garapena. Amaiera. Errepasoa.	Programaren aurkezpena, elkarrizketarako arauak eta gatazkak konpontzeko metodologia. Ikasturtean landu beharreko edukien aurkezpena. Saioak behar bezala funtzionatzeko arauak adostuko ditugu, eta gatazkak konpontzeko espazioa sortu edo berrikusiko dugu. Garapen pertsonala; programaren sarrera. Pertsonen garapenean aldatzen diren eta bere horretan geratzen diren alderdien analisia. Eskola eta irakaslea. Eskolak eta irakasleek gure garapen intelektualean laguntzen digute; munduko hainbat eskola ezagutuko ditugu; gure irakasleari elkarrizketa egingo diogu, eta plastikan bere erretratua egingo dugu. Amaiera. Errepasoa.
2. HIRUHILEKOA	Zer behar du gure gorputzak garatzeko. “Gorputzaren fabula” irakurri ostean, gure gorputzak behar bezala garatzeko behar duenari buruz hitz egingo dugu. Jan eta jan. Elikadura garapenaren funtsezko ardatz gisa; interneteko jolasen bidez eta plastikan Archinboldo pintorearekin, elikadura orekatuari buruz ikertuko dugu. Bidaia bizitzan barna. Plastikan egingo dugun ipuin bisual batetik abiatuz, gizakiaren garapen-faseez jabetuko gara. Amaiera. Errepasoa.	Gure emozioak aldatu egiten dira, eta bilakaera bat jasaten dute garatzen garen neurrian. Hainbat sentimendu ikertuko ditugu honako hauetatik abiatuz: laburmetraiak ikusi, plastikako jolasak egin... - Konfiantzari buruz hitz egingo dugu. - Beldurra. - Amorrua. - Alaitasuna. - Inbidia. Ohitura osasuntsuak; egindakoa berrikusi. Gure garapenerako ohitura eta jarrera osasuntsuak eta ez-osasuntsuak direnak berrikusi.
3. HIRUHILEKOA	Zaharren egoitzara bisita. Urte askotan bizi izan diren pertsonen galdetuko diegu momentu honetan, beraientzat, zer gauza diren garrantzitsuak. Egindako lana berrikusi eta pankartak.	Dokumental baten bidez, Indiara joango gara, Kalkutara, beste errealitate batzuk ezagutzera; helburua izango da han bizi direnekiko zer dugun berdina eta zer desberdina jakitea, kooperazioari buruz eta GKEen lanari buruz hitz egitea. - Milurteko helburuak - GKE baten bisita - Kalkuta eta Ama Teresa Egindako lana berrikusi eta pankartak.

3.3.2 Jarduera-fitxa: zaharren egoitzara bisita

PROGRAMAREN HELBURUA: pertsonen garapenaren aro desberdinak sakontzen jarraitu. Urte askoan bizi izan diren pertsonak ezagutu, eta haientzat, momentu honetan garrantzitsuak diren gauzak zeintzuk diren deskubritu.

GARAPENA: egoitzara bisita prestatuko dugu.

Emateko zerbait eta jasotzeko zerbait.

Garrantzitsua da egoitzarako bisita prestatzeko denbora hartzea, egoitzan bere lanbidearekiko bokazio duen pertsona topatzea, eta denon artean pentsatzea nola lortu haiekin joan-etorriko harremana, hartu-emaneko harremana. Hau da, ikasgelan gaudela pentsatu behar dugu zer egin edo eraman diezaiekegun aitona-amonei, gustuko izango duten zerbait, eta baita zer egin dezaketen egoitzan zaharrek hurrekin batera ere (adibidez, gimnasia, musika, bingoan jolastu...). Modu horretan, lortzen dugu momentu batean haurrak izatea protagonistak eta beste batean, aitona-amonak.

IKASGELAN BISITA AURRETIK

Galdetuko diegu zer fasetatik pasatzen garen pertsonak gure bizitzan. Lagungarri, fase bakoitzeko irudi adierazgarriak bila ditzakegu. Erantzunak arbelean idatziko ditugu: jaioberria, haurra, nerabea, gaztea, heldua, zaharra.

Esango diegu bisita bat egingo diegula fase horietako ia guztietatik pasa diren pertsonen: zaharren egoitzara joango gara eta haiekin hizketan arituko gara.

Gure ustez, zer dute gustuko hainbeste denbora bizi izan diren pertsona horiek? Zerk jartzen ditu alai eta sentiarazten ditu ongi? Gure ustez, zeren beldur dira?...

Boluntario batek taldeko erantzunak bidaia-koadernoan jasoko ditu gero aitona-amonei galdetzeko, eta ikusteko guk pentsatzen genuena eta haien erantzunak ea bat datozen.

Taldeka egin nahi ditugun galderak prestatuko ditugu, eta fitxa batean idatziko ditugu ez ahazteko (egoitzan ezagutuko ditugun aitona-amona kopuruaren arabera egingo ditugu taldeak).

Denon artean erabakiko dugu zer eraman dezakegun egoitzara edo zer egin dezakegun haiei gustatuko litzaiekeena kontuan izanda (adibidez, gimnasia, akrobazia ariketak, abestu, marraztu...). Proposa diezaiekegu hurrei beren aitona-amonei esatea egoitza batera goazela, eta galdetzea ea beraiei zer egitea gustuko litzaiekeen.

Plastikan, gure opariak prestatuko ditugu.



EGOITZAN, AITONA AMONAK ELKARRIZKETATUKO DITUGU

Koldo Mitxelena Herri Ikastetxean esperientzia hau izan genuenean, galderak egiterako garaian, haur bakoitzak, espontaneoki, erabaki zuen zein aitona edo amonari galdetu nahi zion. Gertakari horrek lotura eta isiltasun berezi bat sortu zuen. Zirrargarria izan zen ikustea haurrek beldurrei buruz, heriotzari buruz, gauza inportanteei buruz nola galdetzen zuten, eta aitona-amonek, goxotasun eta naturaltasun handiz, nola erantzuten zuten pentsatzeko denbora-tarte bat hartu ostean.

Jolasen txanda iritsi zenean, taldeak egin eta norberak bere burua aurkezteko garaian, pegatinak erabili genituen izenak ikasteko. Haurrek idatzi zituzten aitona-amonen izenak, eta pegatinak jartzen ere lagundu zien. Baliabide hori oso baliagarria izan zen denen artean hurbilketa bat egoteko.

AMAIERA

Bidaia-koadernoa erabiliz, aitona-amonen erantzunak komunean jarriko ditugu, eta hasieran erantzungo zutela uste genuenarekin alderatuko dugu.



3.3.3. Jarduera-fitxa: beldurra

PELIKULA LABURMETRAIA: "OGIA ETA KALEA"

Zuz.: Abbas Kiarostami. Iran. 11'.

PROGRAMAREN HELBURUA: filmeko protagonistaren bizipenetik abiatuz (8 urteko haurra), beldurrari buruz hitz egitea. *"Beldurrak geldiarazi egiten gaitu eta konfiantzak aurrera egiten laguntzen digu"*.

EDUKIAREN LABURPENA

Beldurra sortzen da mehatxu edo arrisku bat egon daitekeela abisatzen digun seinale gisa, biziraupenerako tresna baita. Ezin dugu ekidin beldurra sentitzea, ez dago gure esku.

Gero eta gehiago dakigu gure garunak arriskua detektatzeko moduari buruz, eta beldurra sentitzen duguneko gure gorputzaren erreakzioei buruz. Badirudi beldurrak digestio- eta sexu-funtzioak eten egiten dituela. Esaten dute beldurra ere heredatu egiten dugula, arratoi beldurtien leinu bat lortu baita. Beldurraren aurrean izan ditzakegun erreakzioak asko izan daitezke: ihes egitea, eraso, geldi geratzea, beste batzuei leporatzea...

GARAPENA: gaur ikasgela zine-areto bilakatuko da.

Eroso jarriko gara, eta begiak eta belarriak ongi irekiko ditugu.

1. Abbas Kiarostamiren laburmetraia ikusiko dugu: "Ogia eta kalea" 11'.
2. Amaitutakoan, borobilean eseriko gara, guztion aurpegiak ikusteko moduan. Irakasleak elkarrizketa galdera batekin hasiko du: zer iruditu zaizue filma?
Garrantzitsua da denek erantzutea, irakasleak jakin dezan protagonistak sentitzen duen beldurra hurrek antzeman ote duten. Batzuetan ezustekoak ere izaten dira, pentsatzen dutelako haurra dagoela nekatuta, norbaiten zain...; hala bada, galde diezaiekegu ea uste duten haurrak beldurra sentitzen duela. Elkarrizketan erabil daitezkeen galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu:
 - Non, gorputzeko zein ataletan sentitzen du, zuen ustez, beldurra? Zuen ustez, zergatik dago geldirik? Gerta daiteke beldurrak gu geldiaraztea, gauzak egiten ez uztea?
 - Haurrak egiten du zerbait beldurra kentzeko? Nola gainditu beldurra?
 - Noizbait beldurra sentitu al duzue? Noizbait beldurrak ez dizue zerbait egiten utzi?
 - Zer egin duzue horri aurre egiteko? Lortu al zenuten? Nola sentitu zarete horren ostean?
 - Mundu guztiko pertsonak sentitzen dute beldurra?
 - Zuen ustez, zer nahi zuen zakurrak? Zergatik egiten zuen zaunka?
 - Zakurrak jarrera bera zuen bi haurrekin?
 - Zakurraren asmoa norbait beldurtzea zen? Edota, behar bada, zaunkaren bidez honako hau esan nahi zuen: "zure laguna izan nahi dut", "zurekin jolastu nahi dut", "eraman nazazu zurekin etxera"...

3. Alderdi emozionalez gain xehetasun teknikoei ere errepara diezaiekegu, adibidez, filma zuri-beltzean izatea, zer idazkera ageri den kredituetako izenburuetan... Ba al duen soinurik, elkarriketarik, musikarik...

Aukeran, nahi izanez gero, munduko mapa bat har daiteke bertan Iran kokatzeko, interesgarria izan daiteke zine ona egiten den munduko lekuen berri izateko.

PLASTIKA: beldurren kaxa.

Kaxa bat prestatuko dugu; zirrikitu bat izango du, hortik gure marrazkiak sartzeko.

Zenbait egunetan gelan utz dezakegu haurrek beldurra irudikatzen duten beren marrazkiak sartzeko. Proposamen gisa, haur bakoitzak marrazki bat atera dezake eta, ondoren, irudikatuta dagoen beldurra antzez dezake.

Gure beldurren koaderno bat edo panel bat egin dezakegu, eta beldur horiei aurre egiteko egiten ditugun gauzak txerta ditzakegu.

AMAIERA

Landutako ideia nagusiak eta ateratako ondorioak gogora ekarriko ditugu. Bidaia-koaderno.

BEHARREZKO MATERIALA

Proiektorea, You Tube-n aurkituko duzuen “Ogia eta kalea” (“El pan y la calle”) laburmetraia, kaxa hutsa (beldurak sartzeko), eta marrazkiak egiteko materiala.



heriotza

gatazka

duina

bizitza duina

zaintza

konponbidea

errespetua

zikloa

laguntza

tratu txarra

legeak

hondamendia

aurreiritzia

lankidetza

kooperazioa

tratu txarra

errespetua

Goi-mailako zikloa

bizitza eta gatazka

heriotza

laguntza

errespetua

zikloa

gatazka

gatazka

legeak

konponbidea

bizitza duina

arauak

zaintza

hondamendia

konponbidea

zaintza

kooperazioa

beharra

heriotza

aurreiritzia

lankidetza

beharra

hondamendia

legeak



3.4. Goi-mailako zikloa: bizitza eta gatazka

Haur guztiek dute bizitzeko eskubidea, bizitza duin batez gozatzeko eskubidea. Kontzeptu horri buruzko elkarrizketa hasteko, familian hausnarketa egingo dugu pentsalarien esaldiekin. Ikusiko dugu bizitza eta heriotza ziklo beraren bi prozesu natural beharrezko direla; ez da posible bata bestea gabe existitzea.

Gizakien bizitzak bizikidetzaz hitz egitera eramaten gaitu; aztertuko dugu zer jarrerak laguntzen eta oztopatzen duten, eta gatazka bizitzaren berezko elementu gisa ulertzen saiatuko gara. Gatazkak hondamendien aldean desberdinak dira, normalean konponbidea izaten dutelako, nahiz eta sarritan zaila izan. Askotan aurreiritziek sortzen dituzte gatazkak, aurreiritziek diskriminazio-jarrerak eragin baititzaizkete.

Azken ikasturtean animalia bat sartuko da ikasgelan. Esperientzia horrek lagunduko digu programan ikasitako guztia praktikan jartzen eta sakontzen, eta bizitza eskubidearekin erlacionatutako gaia lantzen jarraitzen; denon artean antolatu eta kooperatu beharko dugu animaliak bere beharrak ase ditzan, zaindu egin beharko dugu eta babestu, zenbait arau/lege adostu beharko ditugu...

Azken hiru hilabeteetan, etorkizunera begira jarriko gara; datorren ikasturtean zikloz aldatuko gara, beraz, komeni da ikasketa-prozesu eta -teknikei erreparatzea eta ofizio desberdinak begiratzen eta deskubritzen hastea.



3.4.1 Prograzioa

	BOSGARREN IKASTURTEA	SEIGARREN IKASTURTEA
1. HIRUHILEKOA	Programaren aurkezpena. Elkarrizketarako arauak. Ikasturtean landu beharreko edukien aurkezpena. Saioak behar bezala funtzionatzeko arauak adostu edo berrikusiko ditugu. Bizitzari buruz hizketan. Pentsalarien bizitzari buruzko esaldietatik abiatuz, lan grafikoa eta elkarrizketa. Bizitzaren zikloa. Mattinen ipuinak heriotzari buruz hausnartzen lagunduko digu, eta heriotza bizitzaren zikloaren parte bezala ulertzen saiatzen. Amaiera. Errepasoa.	Programaren aurkezpena. Elkarrizketarako arauak. Ikasturtean landu beharreko edukien aurkezpena. Saioak behar bezala funtzionatzeko arauak adostu edo berrikusiko ditugu. Sarrera: animalia bat ikasgelan. Gure ikasgelara iritsiko den kide berriarekin, programan landutako edukiak praktikan jarriko ditugu. - Behaketa eta deskribapena. Nola antolatuko dugu lana? - Legeak/arauak, kooperazioa, zaintza, babesa, bizitza duina, oinarrizko beharrak. Amaiera. Errepasoa.
2. HIRUHILEKOA	Bizikidetzari buruz hizketan. Animaliek taldean duten bizitzari buruzko bideo batek gizakien arteko bizikidetzari dagozkion desberdintasunetan pentsatzeko aukera emango digu eta hori laguntzen eta oztokatzen duten jarreketan. Aurreiritziak. Laburmetrai bat ikustea abiapuntua izango da aurreiritziek gure bizikidetzan duten eraginari buruz ikertzeko. “Botoien gerra”. Filmak “jolasa/gatazka” edo “tratu txarra” bezalako gaiak lantzen ditu, bizikidetzarekin eta bizitzarekin zuzenean erlazionatutakoak. Amaiera. Errepasoa.	Ikasteko prozesua. Datorren ikasturtean hurrek ikasketen ziklo berri bat hasi behar dute, eta beraz, gai hori landuko dugu; garrantzitsua da hiritartasunaren curriculumean ere. Amaiera. Egindakoa berrikusi.
3. HIRUHILEKOA	Gatazka eta hondamendia. Bizipen-jolas batek lagunduko digu ulertzen gatazkaren eta hondamendiaren arteko desberdintasuna; ikusiko dugu errazagoa dela denon artean gatazkei irtenbidea topatzea. Gatazkari buruz hizketan. Aurreko jardueratik abiatuz eta Power Point baten laguntzaz, gai honetan sakonduko dugu. Lan guztia berrikusiko dugu.	Hirugarren hiruhilekoan, hainbat ofizio ezagutuko ditugu, zaharrak eta egungoak, horietara iristeko bideak ezagutuko ditugu, genero ikuspegia lantzearekin batera. 6.6.- Hainbat ofizio 6.7.- Zer izan nahi dut 6.8.- Antzinako ofizioak Lan guztia berrikusiko dugu.

3.4.2. Jarduera-fitxa: aurreiritziak

PROGRAMAREN GARAPENA: Aurreiritzien inguruan elkarrizketa sortzea; denon artean kontzeptu honen esanahia ulertzen saiatzea eta aurreiritziek gure eguneroko bizitzan eta bizikidetzan duten eraginari buruzko gogoeta egitea.

GARAPENA

LABURMETRAIA: “BAZKALTZEKO HITZORDUA” - AEB, 13’ (Laburmetrai hau New Yorken errodatu zuten, Central Station-en –film askotan agertzen da- 1989. urtean)

Gaur ikasgela zine areto bilakatuko da.

Eroso jarriko gara eta begiak eta belarriak ongi irekiko ditugu.

1. “Bazkaltzeko hitzordua” laburmetraia ikusiko dugu.
2. Amaitu ostean, borobilean eseriko gara, denon aurpegiak ikusteko moduan.
Hezitzaileak hasiera emango dio elkarrizketari honako galdera honekin:

Zer iruditu zaizue filma? Galdera hitz bakarrarekin erantzuten saia daitezela eta denek erantzun dezatela. Denbora izanez gero, interesgarria litzateke, aurrez adjektibo zerrenda bat prestatzea arbelean, zer esan ez dakitela geratzen baldin badira, erreferentzia bat izateko. Jarraian, eta laburmetraia abiapuntu izanik, elkarrizketa parte-hartzaile bat izango dugu, helburuetan proposatzen diren edukiak lantzeko bideratua. Dena den, hezitzaileak erabakiko du galderak erabiliko dituen ala ez, egoki baldin badira, gaztetxoan aipamenei erantzuten baldin badie edota elkarrizketaren norabidea jarraitzen baldin badute:

- Zein pertsonai ikusi dituzue estazioan? Eta jatetxean?
- Pertsonaiak: emakumea, “badakit zer gertatzen zaizun” dioten figurantea, zerbitzaria, bazkaltzen ari zena. Zein adjektiborekin deskribatuko zenituzke: ulerkorra, inteliggentea, pasota, ona, “laguntzaile”...?
- Zein erreakzio du emakumeak bultza egiten diotenean eta poltsa erortzen zaionean? Zer pasatzen zaio burutik? Zuen ustez, zer pentsatzen du momentu horretan bultza egin dion pertsonaz?
- Zer uste duzue pentsatu duela emakumeak gizona entsalada jaten ikusi duenean?
- Eta gizonak, emakumea plateretik jaten hasten denean?
- Gizonak kafea eskaintzen dionean, zergatik uste duzue egiten duela? Zuen ustez, zer sentitzen du?
- Gizonak kafea eskaintzen dionean, zuen ustez, zer sentitzen eta pentsatzen du emakumeak?
- Eta jatetxera bueltatzen denean bere poltsen bila eta topatzen ez ditutenean? Zuen uste, zer da momentu horretan burutik pasatzen zaion lehen gauza?
- Zuen ustez, zer gertatzen zaio emakumeari nahastu dela konturatzen denean? Gertatutakoarekin zerbait ikasiko al zuen?
- Uste duzue emakumeak aurreiritziren bat duela*? Eta laburmetraiako pertsonaiek?

*Normala da neska-mutilek “aurreiritzi” hitzaren esanahia ez ezagutzea. Kasu horretan bere etimologia analiza dezakegu, denon artean bere esanahia zein den argitzeko (“aurre- iritzi” ,“pre-juicio”), hiztegian begiratu dezakegu, interneten, etxean galdetu...

- Aurreiritziak onak ala txarrak dira? Biak izan daitezke aldi berean? Zein kasutan?
- Laburmetraia ikusi ondoren, zuen ustez, aurreiritziek erraztu ala zaildu egiten dute bizikidetza? Laburmetraiaren zein momentu aukeratuko genituzke galdera honi adibideak jartzeko?
- Guk ere aurreiritziak ditugu?
- Neska-mutilak 3ko edo 4ko taldetan jarri eta honako esaldiak osatzeko eskatuko diegu, burura datorkien lehen ideiarekin:

“Beltzak*.....”	”
“Homosexualak.....”	”
“Neskak / mutilak (kontrako sexuari buruzko erantzuna).....”	”
“Jende behartsua.....”	”
“Jende aberatsa.....”	”
“Ezinduak.....”	”
“Andaluziarrak.....”	”
“Kataluniarrak.....”	”
“Euskaldunak.....”	”

10 minutu emango dizkiegu eta ondoren emaitzak komunean jarriko ditugu, erantzunak aurreiritziak ote diren eta bizikidetza oztopatzen ote duten galdetuz.

*Neska-mutilei elkarrizketa bortitza gerta ez dakien, adi egongo gara ikasgelaren aniztasunera eta esaldiaren formulazioa aldatuko dugu (“Marokoarrak...”, “musulmanak...”, “hegoamerikarrak...”, “ijitoak ...”).

AMAIERA

Gaztetxoei zeri buruz hitz egin dugun galdetuko diegu, ea zerbait ikasi duten, harrigarria iruditu zaien zerbait egon ote den. Bidaia-koadernoan ondorio nagusiak jasoko ditugu. Irudi bidezko balorazioa.



3.4.3. Jarduera-fitxa: animalia bat ikasgelan

PROGRAMAREN HELBURUA

Jardueraren helburua da egoera bat sortzea bizitza eta gatazkari buruz hitz egiteko aukera emango diguna, hori eskatzen duten testuinguru errealek abiapuntu izanik.

Kontuan izan behar dugu programaren ardatza bizitzeko eskubidea dela. Ez desbideratzeko, gaiarekin erlazionatutako edukien 3 bloke proposatzen dira, eta irakasleak erabakiko du noiz eta zer hurrenkeratan aplikatu. Lan erritmoa taldean sortzen joango diren gertakarien eta interesen arabera antolatuko da. Animaliak, beraz, prozesuaren testuingurua eratuko du, eta aitzakia bat izango da honako eduki-bloke hauei buruz hitz egiteko:

BEHAKETA – ANTOLAKUNTZA, arauak eta legeak: kide berri batekin ikasgelako bizikidetzaren antolatu behar da, eta beraz, garrantzitsua da ezagutzea eta denon artean pentsatzea nola antola gaitezkeen zaintzeko.

OINARRIZKO BEHARRAK / BIZITZA DUINA, KOOPERAZIOA, ZAINZA, BABESA: denok behar bezala garatzeko, ikasgelan denok egon behar gara ongi, bizilagun berria barne, eta beraz, animalia berriaren beharrez hitz egin beharko dugu. Zer behar dugu eta zer behar du animaliak modu egokian garatzeko/hazteko?

GATAZKA: ziurrenik animalia eztabaidarako arrazoi izango da neska-mutilen artean behin baino gehiagotan. Proposatzen dugu liskar horiek erabiltzea ikasteko, gatazkei buruz modu naturalean hitz egiteko, bizikidetzaren berezko elementuak baitira; antolatzen saiatuko gara hain mingarriak gerta ez daitezen eta konpontzeko errazagoak izan daitezen.

GARAPENA: BEHAKETA ETA ANTOLAKETA

Aurkezpenean, irakasleak hurrei azalduko die kide berri bat izango dugula ikasgelan, eta aurrerantzean antolatu egin beharko garela eta erabakiak denon artean hartu, animaliak bere beharrak ase ditzan eta ongi bizi eta hazi dadin.

Gure ikasgelako kide berria **behatzeko eta deskribatzeko** erabiliko ditugu lehen saioak. Ikasgela bi taldetan banatuko dugu eta bakoitzari koaderno bat emango diogu, idazteko, hainbat orritan, behaketa bideratuko duten galderak.

- Nola mugitzen da? Zer mugimendu mota egiten ditu?
- Zer koloretakoa da? Nolako forma du?
- Ukitzen baduzu, nolakoa dela esango zenuke?
- Zer usain du?
- Zarataren bat egiten du? Noiz? Nolako da?
- Pentsatzen duela uste al duzue? Zertan pentsatzen egon daiteke?
- Maniaren bat du?



Beharrezko denbora hartuko dugu (egun batzuk izan daitezke) animalia behatzeko eta galderak erantzuten joateko. Taldeetako lana ezkutuan edukitzea partekatze momentua iritsi arte, motibazio-iturri izan daiteke beraientzat. Lana elkarri ezagutzera emateko garaian, talde bakoitzak galdera bat egingo dio beste taldeari. Erantzuna entzun ostean berearekin alderatu eta beraiek erantzun dutena azalduko dute.

Animaliaren beharrei buruz eta horiei erantzuteko antolatze moduari buruz hitz egiteko momentua iritsi da.

- Zer baitetarako behar gaitu?
- Zer gertatuko litzateke kasurik egingo ez bagenio?
- Zer eduki behar dugu kontutan animalari arreta egokia emateko?
- Non aurki dezakegu edo nori galde diezaiokegu beharrezko informazioa?
- Zerk laguntzen du eta oztopatzen du bere garapena?
- Nola antolatuko gara gure ikaskide berriari arreta egokia eskaintzeko?
Gutako bakoitzak nahi duena egingo du animaliarekin?
- Animaliarekiko portaera edo jokabide-arau batzuk jarri beharko al genituzke? Zergatik?
- Zer eduki beharko genuke kontutan?
- Izena jarri beharko al genioke? Zergatik?

Animalia zaintzeko adostu behar ditugun arauak erabakitze garaian, interesgarri izan daiteke honako hauei buruz hitz egitea:

ARAUAK ETA LEGEAK

“Legeak dira pertsonen gizarte-bizitza, politika eta ekonomia arautzen duten xedapenak. Esan daiteke arauak edo erregelak baino pisu handiagoa dutela, horiek ez betetzeak zigorren bat ekar baitetzake. Lege-autoritate batek, gobernu batek, parlamentu batek ezartzen ditu. Arauak, aldiz, zenbait egoeratan nola jokatu behar dugun adierazten diguten enuntziatuak dira”.

- Desberdindu honako zerrenda honetan legeak eta arauak:
 - Bazkaria amaitzean familiako kideek platerak eta jateko tresnak ontzi-garbigailuan sartu behar dituzte.
 - Debekatuta alkohola saltzea 18 urte baino gutxiagokoei.
 - Nire etxean debekatuta dago erretzea.
 - Adin txikikoek ezingo dute lanik egin.
 -
- Etxean daukazuen arauen baten adibidea jarri. Zergatik da arau bat eta ez lege bat?

OINARRIZKO BEHARRAK / BIZITZA DUINA

Animaliarekiko ikasgelako funtzionamendua antolatzeko kontuan eduki behar dugunari buruz mintzo garenean, oinarritzko beharrak asetzeari buruz ari gara. Animaliak izaki bizidunak dira, eta zentzu horretan bizirauteko gutxieneko beharrak ase behar dituzte, adibidez, jatea, edatea, mugitzeko lekua izatea...

Animaliaren beharrei buruz hitz egiteak, informazioa bilatzeak eta panel bat egiteak gure beharrei buruzko hausnarketa egitera eramán gaitzake, pertsonen oinarritzko beharrei buruzko hausnarketa. ***‘Gizakiez mintzo garenean, oinarritzko beharrak asetzeaz gain, esaten dugu pertsonok, pertsona izate hutsagatik, bizitza duin bat izateko eskubidea dugula. Duina esaten dugunean zera esan nahi dugu: aintzat hartzekoa, aipagarria, merituduna, alabatu beharrekkoa, goretsia, goraipatua, baina baita itxurazkoa, osoa eta zintzoa ere’.***

- Haurrei proposatuko diegu pertsonen duintasunezko eta duintasunik gabeko tratua jasotzen duteneko egoera erreala idaztea. Adibidez, duintasunezko tratua da erabaki baten ondorioak jasango dituen pertsonari bere iritzia eskatzea. Duintasunik gabeko tratua da pertsona bat kontutan ez hartzea gurekiko desberdinak diren beste ohitura batzuk dituelako.
- Talde txikitán jarrita, haur bat modu duin batean gara daitekeen egoeratan pentsatuko dugu. Saiatuko gara zerrenda bat egiten, honako hau adibidez:

- | | |
|--------------------------|-----------------|
| - janaria | - aire garbia |
| - ura | - etxe bat |
| - moda-modako oinetakoak | - telebista |
| - eskola | - gurasoak |
| - lagunak | - mediku arreta |

Talde txikitako zerrendak eginda daudenean, saiátuko gara horiek bateratzen eta zerrenda bakarra proposatzen, bat etorritako alderdiak azpimarratuz. Ondoren alderdi horiek aztertuko ditugu; lehenik eta behin, gehien aipatu direnak, ikusteko ea baldintza beharrezko eta ezinbestekoak diren. Eta gero, gehien azaldu diren horietatik ikusiko dugu ea baten bat kanpoan utz daitekeen.



KOOPERAZIOA

Animaliari arreta egokia emateko nola antolatu pentsatzeko garaian, kooperazioaren gaia landuko dugu. Pertsona talde batekin bizi bagara, behin baino gehiagotan beharrezkoa izango da denok batera kooperatzea helburu komun bat lortzeko edo horretara gerturatzeko. Bizipen-ariketa bat eta gertaturikoari buruzko ondorengo hausnarketa baliagarri izango zaigu jakiteko zein diren kooperazioaren eta talde-lanaren alderdi positiboak eta zailtasunak.

- Haurrak 5eko edo 6ko taldetan banatuko dira. Talde bakoitza alfonbra (edo paper bilgarri) baten gainean jarriko da, 5 edo 6 pertsona sartzeko moduan, eta alfonbrak elkarren artean metro eta erdiko distantzian, gutxi gorabehera, egongo dira. Irakaslea honako istorio hau kontatzen hasiko da: “Ibai arriskutsu baten gainean zaudete, korronte indartsuak, zurrunbiloak eta piraña gosetuak daude, eta zuek txalupa txiki batzuen gainean zaudete. Alfonbrak txalupak dira eta ikasgelako lurra, ura. Txalupei buelta ematea lortu behar duzue, bestela hondoratu egingo dira, eta ura ukitzen baldin baduzue, pirañek hozka egingo dizue”. Helburua lortzeko kooperatu eta elkarri lagundu beharko diote taldeek; talde batek bere txalupan ondoko taldekoak hartu beharko ditu, pertsona batek edo bik txalupari buelta eman diezaioten.

Elkarrizketarako proposamena

- Nola joan da jolasa? Helburua lortu al dugu?
- Nola sentitu gara? Zer ikas dezakegu ariketa honetatik?
- Erraza izan al da kooperatzea? Zer zailtasun egon da?
- Gure bizitzan, orokorrean, zentzurik ba al du kooperatzeak? Zergatik? Zertarako?
- Zertan laguntzen eta oztopatzen du kooperazioak?
- Animalia zaintzeko, gure artean kooperatu beharko genuke? Zergatik?
- Zer gerta daiteke kooperatzen ez badugu?

ZAINTZA ETA BABESA

‘Zaintza norbait zaintzea da, bere beharrak kontutan hartzea eta behar duena ematea. Maitasuna eta afektua exijitzen ditu. Horren kontrakoa kontu ez egitea da, ahaztea, ez arduratzea, kasurik ez egitea’.

- Zer esan nahi du zerbait zaintzea, kontuan izatea edota arduratsu izatea?
- Arbelean bi zutabe egingo ditugu eta zaintzaren sinonimoak eta antonimoak bilatzen saiatuko gara.
- Badira pertsonak “zaintzaile izatea” dutenak lanbide. Imajina dezakezu zein lan mota egiten duten eta non?

‘Babestea laguntzea da, mesede egitea, defendatzea, pertsona edo animalia bat edozein arriskutik edo kaltetik gerizatzea’.

- Zer da babesa? Gauza bera da babestea edo zaintzea?
- Hitz hauek adiera bera dute? Babestu, arreta izan, zaindu, lagundu, defendatu...
- Zure ustez, nor arduratzen da haurrak babesteaz?
- Haurren eskubideek zerikusirik izan dezakete horrekin?
- Gure animalia babestu behar dugu? Zertaz?

GEHIEGIZKO BABESA: *“Babestuta ez egotea txarra da, baina gehiegizko babesa ere ez da batere ona; gehiegizko babesak haurren kasuan, esaterako, pertsona horiek autonomiarik ez izatea ekar dezake. Kontu gehiegirekin tratatuak izan direnez, helduek eta heldu arduratsuak izatea eragozten zaie.”*

Zenbait adibide aipatuko ditugu:

Babesa	Gehiegizko babesa	Ondorioak
Elikadura	Nahi dutena jan dezatela	Elikadura desorekatua, desnutrizioa, obesitatea...
Janztera	Beti arropak erosten egotea	Kontsumismoa, bereziki arropa edo kanpoko itxura baloratzea...
.....		

GATAZKA

“Gatazka eta bizikidetza bi gizarte errealitate berezko dira gizarteko bizimodu guztietan. Desberdintasunak positiboak dira aberastu egiten gaituztelako, baina horrexek berak eragingo du beste pertsona batzuekin bizi garen momentutik adostasunak eta desadostasunak egotea gure pentsatzeko edota jokatzeko moduan, esaterako. Gatazkek elkarrengana gerturatzeko, ulemenerako edota aurrera pausuak emateko aukera gisa ulertzen baditugu, hobeto biziko gara”

Plastikako ariketa batek gatazka bat bizitzeko aukera emango digu, eta taldean irtenbide bat bilatzen saiatzeko aukera.

Plastikako proposamena: bizitzaren jolasa

Abiapuntu gisa bizitzaren marrazki bat egitea proposatzen dugu. Txarol papera eta kolorezko fondoak izango ditugu aukeran eta markatzaileak ahal baldin bada lodietakoak, hain gustukoak ditugunak.

Haurrei gatazka bat izango dugula esan behar diegu, eta aukerakoa dela parte hartzea. Lanak aurreratuta daudenean, erasoarekin hasiko gara; dado batek esango digu marrazkia nola puskatuko den, zenbakia bikoitia bada, guraizeekin eta bakoitia bada, eskuekin.

Gerta daiteke haur batzuk parte hartu nahi ez izatea. Parte hartzea librea da eta, ondoren, prozesua kontatzen lagunduko digute. Lan honek tentsioa sortzen du eta hainbat irakaslek erabaki dute lankide bat sartzea gelan eta hark egitea eraso; eskaini daiteke haurrek beren marrazkia haustea, edo irakasleak hautsi dezake. Marrazkiaren zatiak nahas daitezke ala ez.

Honako galdera planteatuko dugu: gertatu dena hondamendia da ala gatazka? Konpondu dezakegu? Nola? Zatiak pilatu eta bizitza birsortu egingo da.

Denon artean marrazkia berregin eta itsasteko, euskarri handi bat erabiliko dugu, forma borobildua edo lauki-luzea duena... Panela egiteko garrantzitsua da antolatzea, espazio nahikoa edukitzea muralean lan egiteko, eta espazioa urria bada, lehenik zatiak antola daitezke eta ondoren itsatsi.

Garrantzitsua da denbora bat hartzea denon artean marrazkia nola berregin ikusteko, gatazkaren orbanak ahalik eta gutxien ikusteko moduan, hori nahi baldin badugu behintzat. Orbanak agerian geratzea nahi baldin badugu (lana puzzle bat balitz bezala berregitea nahi baldin badugu), garrantzitsua da aukera hori ere eskaintzea. Kasu bietan zuku handia atera dakioko elkarriketari.

Inoiz ez dugu ahaztu behar jendea mindu egin daitekeela eta nahi duenak soilik parte hartu behar duela.

Eztabaida-plana: gatazka eta hondamendia

Plastikako orduan gertatu denari buruz hitz egingo dugu. Denon artean komentatu nahi duten zerbait ote dagoen galdetuko diegu neska-mutilei. Erantzunak arbelean idatziko ditugu eta hizketan nondik hasiko garen erabakiko dugu.

Jarraian proposaturiko galderak eta ariketak elkarriketak hartu duen norabidearen arabera aukeratuko ditugu:

- Zer gertatu da plastikako orduan?
- Nola sentitu zarete ariketaren momentu desberdinetan?
- Gertatutakoari konponbiderik topatu ahal izan diozue?
- Konponbidea izan badu, nola topatu duzue?
- Zuen ustez, zergatik egin dugu ariketa hori?
- Zer ikas dezakegu horrekin?

Gatazkak konpon daitezken egoerak dira; konpondu ezin bada, ez da gatazka, hondamendia da.

- Ikus dezagun honako kasuetatik zeintzuk diren gatazkak:

- Ikaskide batek iraindu egin zaitu.
- Langabetu askok ez dute lanik topatzen.
- Gehiegizko beroarekin sute arriskua dago mendietan.
- Immigranteak ezin dira ospitalera joan.
- Irakasleak klasera ez joatea erabaki du.
- Euri asko egin eta ibaiak gainezka egin du.
- Kotxe-bonba bat lehertu egin da.
- Galipota Donostiako hondartzetara heldu da.

AMAIERA

Bizitzaren jolasaren esperientziak lagun diezaguke animaliarekin sortutako gatazkei berriro ere heltzen eta, hondamendiak ez badira behintzat, denon artean irtenbide bat topatzen.



3.5. Gorputz-hezkuntzan lantzeko jarduerak

Honako jarduera hauek aukeratu dira mugimenduaren eta gorputzaren bidez konfiantza, konfiantza eza eta beldurra bezalako sentimenduak lantzeko.

HASIERA

Mugimendu gidatua: zutik borobilean jarriko gara, irakasleak gorputzeko atal bakoitza mugitzen hasten denean, gainerakoek imitatu egingo dute; helburua da gorputza esnatzea, lanerako prestatzea, espresioa lantzea, taldean desinhibizioa eta kohesioa lantzea eta emozioekin kontaktuan sartzea.

Musikarekin lagunduta.

ARIKETAK

1. “Itsua eta itsumutila”

Binaka, batek begiak itxiko ditu eta besteak eskutik helduko dio eta gelatik barrena eramango du, ezerekin eta inorekin talka egin gabe, noski.

Galde diezaiekegu: Non dago beldurraren tentsioa beste pertsonarengan konfiantza izatean? Ipurdian dago? Lepoan? Begietan?

Jarraian gidariak bere bikotea sorbaldatik helduko du besoekin inguratuz, eta azkenik, posizio horretan bertan bikoteak azkarrago mugituko dira.

Amaitzean, gidaritza jaso duen pertsonak begiak itxita edukiko ditu eta irakasleak eskatuko die bere arnasketa behatzeko. Non hartzen du arnas, bularraldean, sabelaldean edo alboetan? Arnasketa ohikoa baino azkarragoa da?

Ariketa berriro ere egingo dute bikoteetan paperak trukatzuz.

2. “Ziba”

Zutik, begiak itxita, leunki mugituz oreka bilatu behar da; oin-puntetarantz mugitu, orpoetarantz, alde batera eta bestera, zirkuluak eginaz. Ondoren, bosteko taldetan, bat erdian jarriko da begiak itxita, eta balantzaka hasiko da alde guztietarantz eroriz. Besteek jaso egin behar dute, eta erori ez dadin zaindu. Garrantzitsua da hori behin eta berriz esatea, konfiantza ari baikara lantzen.

3. “Mehatxu-keinuekin. Topaketa espazioan”

Denak espazioan mugitzen hasiko gara, modu librean, eta espresioak edo keinuak egingo ditugu mehatxuzkoak, akusaziozkoak, haserrezkoak... Irakasleak jarduera gelditu dezake (stop esanda), eta honako galdera hauek egin:

- Nolakoa da gure aurpegia?
- Nolakoa da gure begirada?
- Zer nolako keinuak egiten ditugu eskuekin eta besoekin?
- Nola ibiltzen gara?
- Nola hartzen dugu arnas?

4. “Liskarrak eta emozioak”.

Bi ilaratan jarriko gara, ilara bakoitza gelaren mutur batean.

Pertsona bakoitzak bere bikotea du parean.

Pertsona bat geldik dago, datorrena jasotzen; besteak aurrera egiten du mehatxu egiten arituko balitz bezala.

Jolasak aurrera egin ahala, intentsitatea handitu egiten da, eta keinuak gero eta handiagoak dira.

Gerturatzeko momentu baten ostean, irakasleak honako hau esango du: stop. Begiak itxiko ditugu. Nola sentitu gara? Hitzak jarriko ditugu. Mehatxu egiten duenak hitz egingo du lehenik, ondoren, mehatxuak jasotzen dituenak.

Berrirori ere egingo dugu ariketa paperak trukatzuta, denek bi rolak egiteko aukera izan dezaten.

5. “Norberarengan konfiantza”

Espazioan oinez ari garela, kide batekin topo egitean elkarri esan behar diote: “honako hau da nire buruaz gustatzen zaidana...”.

Amaitzean elkarri besarkada bat eman eta agur esaten diote.

AMAIERA

Lasaiketa: lurrean etzanda, bata besteari sabel gainean jarriko du burua, besteari gorputzean sartzen eta ateratzen den aireak sortzen duen mugimendua elkarri sentitzen laguntzeko. Giza kate bat osatu behar da.

Integrazioa: borobilean gaudela, hitz batekin adieraziko dugu nola sentitu garen eta nola sentitzen garen momentu honetan. Gertatu denari buruz hitz egin dezakegu eta saioko momentu adierazgarriena irudikatzen duen marrazkia egin dezakegu, gero gainerakoei azaltzeko.



4. BALORAZIOA

4.1. Haurren eta irakasleen iritzia

**4.2. Elkarrekin bizikidetza eraikiz,
Lehen Hezkuntzako programaren
efektuak garapen sozioemozional
eta sortzailearen faktoreetan**

4.2.1. Sarrera

4.2.2. Metodoa

4.2.3. Emaitzak

Haurren eta irakasleen iritzia

Haurren balorazioa

Programa hitz hauekin erlazionatzen dute

Sentimenduak, adiskidetasuna, taldea, errespetua, ordenagailua, gauza berriak, interesgarria, aspergarria, eskubideak, nahiak, bidaia-koadernoa, triste, alai, beldurra, amorrua, haserrea, laguntza, bizitza, arazoak, karpeta, gelako arauak, diptikoa, munduko haurrak, ebaluazioa, nola sentitzen garen, lagunak, arauak, koadroak, landareak, janaria, pertsonak, eskolak, talde-lana, diskriminazioa.

Gustukoena

Power Pointak, argazkiak, filmak ikustea, sentimenduei buruz hitz egitea, plastikan egitea nolakoak garen eta nolakoak izan nahi dugun handitan, animalia gelan, arazoak konpontzeko murala, txokoa.

Ezustekoak

- Zuhaitzaren jolasarekin, egiteko gai garena.
- Irakaslearen erretratua marraztea.
- Aitona-amonei bisita egitea. Aitona-amonek pentsatzen dutena: ez dute hiltzeko beldurrik, bai sufritzeko beldurra.
- Hainbeste eskola desberdin egotea.
- Nola sentitzen dugun gure sentimenduetako bakoitza.
- Robotak egitean, ikustea hain gutxiarekin hainbeste gauza polit egin daitezkeela.
- Animaliak ikasgelan.

Ez zait gustatu

Bidaia-koadernoa astuna izan da, eta batzuetan egiteko zaila.
Gehiengoari ez zaigu idaztea gustatzen.

Ikasi dutela uste dute

- Haurrok eskubideak ditugu. Haur txiroek ere eskubideak dituzte.
- Denok ez gara berdinak, baina eskubideak ditugu.
- Gure gorputzeko gauzak, barrukoak eta kanpokoak.
- Sentimenduak ikusi.
- Sentimenduei izena jarri diegu.
- Denon artean hitz egin.
- Nola aldatzen diren pertsonak barrutik eta kanpotik.
- Arauak errespetatu.
- Bizitza errespetatu behar dugu.
- Jotzeak ez dakar ezer onik.
- Animalia bat zaintzen, ondo zaintzen, arauak errespetatzen.
- Aitona-amonekin ondo pasatzen.

Irakasleen balorazioa

Programa hitz hauekin erlazionatzen dute

Elkarriketak, baloreak, elkarreragina plastikarekin, entzutea, beharra, ezagutza, sentimenduak, errespetua, adiskidetasuna, bizikidetzatza, enpatia.

Programaren alderdi positiboak

- Programak hainbat baliabide proposatzen ditu tutoretzan, modu sistematikoan, lantzeko; marko bat eskaintzen du tutore bakoitzak edukia bere ikasgela eta ikasleetara egokitzeko.
- Haurrei aukera ematen die sentitzen eta pentsatzen dutena adieraztean lasai sentitzeko eta beraiei entzuteko aukera izatea.
- Egiten diren lanak.
- Ikasgelarako materialak eta baliabideak: fitxak, animazioak, Power Point, zine-proposamenak, material grafikoak eta plastikako proposamenak, irudi bidezko ebaluazioa egiteko materialak.
- Gaiak eta gai horiek lantzeko modua. Bizikidetzarako balore primario eta beharrezkotan oinarritzen dira. Oso egokiak dira eta taldearen bizikidetzan lagundu digute.
- Sortzen diren elkarriketak.
- Ikasgelan elkarriketa hobetzen du.
- Ikasgelan konfiantza-giroa sortzen lagundu du.
- Haurren hausnarketa pertsonala sustatzen du eta baita bestearekiko errespetuarekiko hausnarketa.

Ezustekoak

- Ikasle batzuk adierazitako iritziak oso politak eta baliagarriak izan dira haiek hobeto ezagutzeko.
- Nola landu den sentimenduen gaia, zein ongi barneratu duten, asko gustatu zaie.
- Gu geu egiten gaituenaren gaia, karpetak eta haurren poltsak.
- Haurren erantzunak, pentsatzeko eta adierazteko duten gaitasuna.

Zailtasunak

- Hasiera guztietan bezala, zerbait ez ezagutzeak segurtasun-eza eragiten du.
- Bidaia-koadernoak.
- Batzuetan zaila izan da plastikako proposamen batzuk egitea.
- Fitxak errepikakorrak gertatzen ziren batzuetan.
- Irakasleei eskatzen dien denbora eta lana.

Zer ikasi dute haurrek hilabete hauetan?

- Hitz egitera ausartu.
- Emozioak begiratu.
- Hitzaren eta plastikaren bidez ikusten dutena eta barruan sentitzen dutena adieraztea.
- Elkar hobeto ezagutu dute eta hori lagungarri izan da gelako kideen onarpen eta errespeturako.
- Errespetu gehiagorekin elkarrengana zuzentzea (batez ere tutoretza-orduetan).
- Ikasi daitekeela zerbait eta egoera ia guztietatik atera daitekeela, bai positiboetatik eta bai negatiboetatik.
- Banan hitz egitearen garrantzia.
- Denok ditugula sentimenduak.
- Talde bat eratzen dugun momentutik arau batzuk edukitzeko beharra.
- Egoera batzuetan enpatia praktikan jartzea.



**Elkarrekin bizikidetza eraikiz,
Lehen Hezkuntzako
programaren efektuak
garapen sozioemozional eta
sortzailearen faktoreetan.**

**José Ignacio Pérez Fernández eta
Maite Garaigordobil Landazabal.**

Nortasuna, Balioespena eta
Psikologia Tratamendua Saila.

Euskal Herriko Unibertsitateko
Psikologiako Fakultatea.

4.2.1. Sarrera

Laurogeigarren hamarkadaren amaieratik, psikologiako eta hezkuntzako profesional-talde bat lan egiten aritu da haur eta nerabeentzako programen diseinu, aplikazio eta balioztatze esperimentalean; helburu gisa dute garapen sozioemotionala eta sortzailea estimulatzea, eta horretarako sustatzen dira honako aldagai hauek: komunikazioa, laguntza- eta konfiantza-erlazioak, taldean kooperatzeko gaitasuna, emozioen adierazpena, desberdintasunetikiko errespetua, bestearen onarpena... Jarduera kooperatibo eta sortzaileetan oinarritutako hezkuntza-psikologiako esku-hartze programa horien ebaluazio esperimentalak agerian utzi du bere eraginkortasuna haurren garapen sozioemotional eta sortzailean. Zehazkiago esanda, Lehen Hezkuntzaren esparruan ikusi ahal izan da bilakaera-etapa honetan jarduera kooperatibo eta sortzaileen garapenak honako hauetan lagungarri direla: (1) portaera sozial positiboen igoera (lidergoa, alaitasuna, sentikortasun soziala, errespetua/autokontrola) eta portaera sozial negatiboen gutxitzea (agresibitatea, gogogabetasuna/herabetasuna, antsietatea/lotsa); (2) taldeko kideen irudia hobetzea, ez dira hainbeste baztertzen eta prosozial eta sortzaileztat hartzen dituzte; (3) egonkortasun emozional maila handiagoa; (4) autokontzeptuaren hobekuntza, eta (5) nortasun sortzailearen portaera eta bereizgarrien igoera (Garaigordobil 2003ab, 2004ab, 2005ab; 2004ab, 2005ab; Garaigordobil & Fagoaga, 2006; Garaigordobil & Pérez, 2004).

Testuinguru honetan, azpimarratu behar da, azken urteetan, gazteen indarkeria-arazoarekiko kezka areagotzen ari dela hezkuntzako profesionalen eta mundu guztiko buruko osasunaren profesionalen artean. Ondorioz, ikerketa-lerro batek ardatz hartu du indarkeria prebenitzeko eta gutxitzeko programen diseinua eta ebaluazioa. Ikerketa horien emaitzek agerian utzi dute hezkuntza-, klinika- eta komunitate- testuinguruan egindako esku-hartze horien eraginkortasuna (Chandy, 2007; Dawn & Shaughnessy, 2005; Dole, 2006; 2001; Freiden, 2006; Roberts, White, & Yeomans, 2004; Segawa, Ngwe, Li, & Flay, 2005; Sege, Licenziato, & Webb, 2005; Simón et al., 2008; Slone & Shoshani, 2008).

Aipatutako ikerketa horiek erreferentzia gisa hartuta, lan honek honako helburu hauek izango ditu: (1) Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren efektuak 7 eta 9 urte bitarteko haurrengan, 3 ikasturtetan zehar, izan duen eragina aztertzea garapen sozioemotional eta sortzailearen faktoreetan, besteak beste, portaera sozialak eskola-ingurunean, ezegonkortasun emozionala, taldekideen irudia, autokontzeptua eta nortasun sortzailearen portaerak eta bereizgarriak; eta (2) ikustea ea generoak eragina izango duen Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren efektuetan.

Orokorrean, ikerketak defendatzen du Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programak adin-tarte horretako haurren garapen sozioemotionala eta sortzailea estimulatuko duela, eta honako hiru hipotesi hauek proposatzen dira programa honetarako: (1) nabarmen gora egingo dute sozializazioa laguntzen duten jarrerak (lidergoa, alaitasuna, sentikortasun soziala, errespetua/autokontrola) eta egokitzen sozial globalerako jarrerak (jolaserako lagunak aukeratzea, prosozial gisa hartzen diren lagunen kopurua, autokontzeptua eta nortasun sortzailearen portaera eta bereizgarriak); eta (2) nabarmen gutxituko dira sozializazioaren jarrera asaldatzaileak (agresibitatea/egokortasun-herabetasuna, gogogabetasuna/herabetasuna, antsietatea/lotsa), ezegonkortasun emozionala, jolaserako kideak baztertzea eta ez-prosozial gisa hartzen diren lagunen kopurua. Gainera, honako hau proposatzen da: (3) generoak ez duela eraginik izango Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren efektuetan.

4.2.2. Metodoa

Partaideak

Lagina 80 partaidek eratzen dute; programaren hasieran 7 eta 9 urte bitartean zituzten (9 eta 11 bitartean, programaren amaieran); 6 taldetan daude banatuta eta Euskal Herriko 2 eskola publikotako partaideak dira. Lagin guztitik 53 pertsonari ausaz egokitu zitzaizen izaera esperimental izatea (4 talde), eta 27ri kontrol-izaera izatea (2 talde). Lagina, hasiera batean 92 partaidek osatzen zutena (esperimentaziorako 62 eta kontrolerako 30), 80ra murriztu zen programak iraun zituen hiru urteen ostean (errepikatu dutenak, zentroz aldatu direnak...). 1. Taulan ikus daitekeen bezala, partaide guztien erdiak, programaren hasieran, Lehen Hezkuntzako 2. maila ikasten ari ziren, eta beste erdiak, 3.maila; eta partaideen % 47,5 mutilak ziren eta % 52, neskek. Pertsona horiek erdi-mailako ekonomia- eta kultura-esparrukoak dira.

1. TAULA. Esperimentaziorako eta kontrolerako partaideen banaketa ikasturtearen eta sexuaren arabera pretest fasean.

Ikasturtea	Esperimentala: (n=53)				Kontrolerako (n=27)				Gutzizkoa (n=80)					
	Gizonezkoa		Emakumezkoa		Gizonezkoa		Emakumezkoa		Gizonezkoa		Emakumezkoa		Gutzizkoa	
	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%
2.	10	40%	15	60%	9	60%	6	40%	19	47.5%	21	52.5%	40	50%
3.	11	39.3%	17	60.7%	8	66.7%	4	33.3%	19	47.5%	21	52.5%	40	50%
Gutzizkoa	21	39.60%	32	60.3%	17	63%	10	37%	38	47.5%	42	52.5%	80	100%

Diseinua eta prozedura

Ikerketak metodologia esperimental bat erabili zuen, errepikatutako neurrien diseinu bat pretest/esku-hartzea/posttest, kontrolerako taldearekin. Pretest fasean, programa ezarri eta lehen ikasturtearen lehen asteetan (iraila), lau ebaluazio-tresna eman zitzaizkien menpeko aldagaiak neurtzeko, eta horien gainean egindako hipotesietan adierazi zen programak efektu positiboak izango zituela. Ondoren, partaide esperimentalek esku-hartze programa egin zuten hiru ikasturtetan, eta horretarako astean tutoretza-saio bat (45 minutu) eta plastikako beste bat (90 minutu) erabili zituzten lehen bi urteetan, eta tutoretza eta plastika ordu bateratu bat (90 minutu) azken ikasturtean. Esperimentaziorako taldeen tutoreek zuzendu zituzten saioak; haiek jaso zituzten materialak, prestakuntza eta programako arduradunen laguntza pedagogiko jarraitua. Hiru ikasturte horietan zehar, kontrolerako partaideek eskolako programako tutoretzak eta plastikako curriculum-jarduerak egin zituzten, eta horrekin Hawthorne efektua saihestu zen, beste heziketa mota bat eta arreta-maila bera jaso baitzuten. Posttest fasean, esku-hartzea martxan egon zen azken urteko azken asteetan (ekaina), pretest faseko ebaluazio-tresna berak eman zitzaizkien. Taldeetako arduradunek izan zuten tresna horiek emateko ardura, helburu horretarako egindako seminario espezifikotan prestakuntza jaso baitzuten. Hala ere, proben zuzenketa itsua izan zen, eta psikologiako profesionalek egin zuten, programaren martxarekin zerikusirik ez zuten psikologiako profesionalek.

Ebaluazio-tresnak

Menpeko aldagaiak neurtzeko helburuarekin, 5 ebaluazio-tresna eman zitzaizkien, berme psikometrikoko egokiak zituztenak (ikus 1. Koadroa). Gainera, hiru ikasturtetan zehar egindako programa amaitzean esperientziazko subjektuen aldaketa subjektiboaren pertzepzioa ebaluatzeko asmoarekin, esku-hartzean parte hartu zuten 53 haurrek helburu horretarako “ad hoc” diseinatutako programaren ebaluaketa-galdetegi bat bete zuten.

1. KOADROA. Menpeko aldagaiak eta pretest/posttest ebaluazio-tresnak.

Tresnak	Menpeko aldagaiak	Iturria	Aplikazioa	Denbora
SGS-1. Sozializazioarako galdera-sorta (Silva & Martorell, 1983)	Portaera sozialak: - Lidergoa - Alaitasuna - Sentikortasun soziala - Errespetua/autokontrola - Agresibitatea/egoskorkeria - Gogogabetasuna/herabetasuna - Antsietatea/lotsa - Egokitzapen sozial globala	Irakasleak	Indibiduala	15´
GIM. Giza irudiaren marrazkiaren testa (Koppitz, 1976).	Ezegonkortasun emozionala	Haurrak	Taldeakoa	20´
GS. Galdetegi soziometrikoa: jolaserako laguna eta lagun prosoziala (Moreno, 1934/1972. Garaigordobil egokitzapena 2004a).	Taldeakideen irudia: - Jolaserako lagunak - Lagun prosozialak	Haurrak	Taldeakoa	10´
AEAZ. Autokontzeptua ebaluatzeko adjektiboen zerrenda (Garaigordobil, 2003b. Gough & Heilbrun egileen 1965eko “The Adjective Check List” testaren egokitzapena).	Autokontzeptua	Haurrak	Taldeakoa	10´
NSE. Nortasun sortzailearen eskala (Garaigordobil, 2004a).	Nortasun sortzailearen portaerak eta ezaugarriak	Irakasleak Gurasoak	Indibiduala	10´

SGS-1. Sozializazioarako galdera-sorta (Silva & Martorell, 1983). Eskola-ingurune 6 eta 15 urte bitarteko haur eta nerabeen sozializazioa ebaluatzeko galdetegi da. Baietapenak irakurri behar dira eta erantzun, ea itemaren edukia irakasleak ebaluatzen duen ikasleari aplika dakioken. Galdera-sortako 118 itemek zazpi eskalako sozializazio-profil bat ateratzeko aukera ematen dute; horietako lau portaera sozial positiboekin erlazionatutakoak (lidergo-jarrerak, alaitasuna, sentikortasun soziala eta errespetua/autokontrola); horietako hiru sozializazioarako alderdi negatibo eta asaldataileekin erlazionatutakoak (agresibitate-/egoskorkeria- portaerak, gogogabetasuna/herabetasuna eta antsietatea/lotsa). Sozializazio orokorraren hautemateko eskala bat ere eskaintzen du.

GIM. Giza irudiaren marrazkiaren testa (Koppitz, 1976). Egonkortasun emozionala ebaluatzeko, giza irudiaren marrazkian agertzen diren emozio-adierazleak aztertzen dira. Pertsona baten marrazkia egin behar da. Zuzenketarako, azterketak 30 emozio-adierazle ditu ardatz; zeinu objektibo horiek islatzen dituzte jarrerak, kezak, pertsonen arteko erlazio ez aseak eta haurren antsietateak. Emozio-adierazleek 3 baldintza betetzen dituzte: klinikoki baliagarria, ezohikoak haur normalen GIMtan eta ez du erlazorik ez adinarekin ezta heldutasunarekin ere. Zuzenketa-prozesuan, puntu bat ematen zaio adierazlea marrazkian agertzen denean. Adierazleen esanahi diagnostikoa areagotu egiten da, kopuru guztia kontuan hartzen denean. Marrazki batek ez duenean emozio-adierazlerik erakusten, izan daiteke haurrak ez duelako arazo emozionalik.

GS. Galdetegi soziometrikoa: jolaserako laguna eta lagun prosoziala (Moreno, 1934/1972. Garaigordobil egokitapena 2004a). Galdetegi honetan taldekide bakoitzak adierazten du taldeko zein pertsona –nahi beste pertsona– aukeratzen edo baztertzen dituen honako hauetarako: 1) jolaserako lagun gisa, eta 2) lagun “prosozial” gisa (laguntzen duen laguna, partekatzen duena, kolaboratzen duena, besteak kontsolatzen dituen...).

AEAZ. Autokontzeptua ebaluatzeko adjektiboen zerrenda (Garaigordobil, 2003b.) Gough & Heilbrun egileen 1965eko “The Adjective Check List” testaren egokitapena. Zerrenda horrek nolokotasun positiboko 28 adjektibo ditu, horien artean, ezaugarri fisikoen deskribapenak (3), ezaugarri intelektualenak (6), afektiboenak (11) eta gizartekoitasunezkoak (8), eta horietan oinarrituta ebaluatzen da autokontzeptua.

NSE. Nortasun sortzailearen eskala (Garaigordobil, 2004a). Proba honek 22 baieztapen edo esaldi ditu; horiekin ebaluatzen da sormena, eta horretarako nortasun sortzaileen ezaugarrien hainbat portaera eta bereizgarri aztertzen dira. Guraso eta irakasleek baloratzen dute haurrari portaera edo bereizgarri bat zenbaterainoko intentsitatearekin aplika dakiokeen “batere ez, zertxobait, nahiko edo asko” zenbatespen-eskala batean. Eskala honetako item batzuen adibideak honako hauek dira: “Gauza askori buruzko interesa azaltzen du gai askotarikoei buruzko galderak etengabe eginez; ikusten dituen arazoentzako irtenbide orijinalak proposatzen ditu; marrazketa eta pintura bezalako arte-jardueretikiko interesa du; hitz-jokoak gustuko ditu; abestiak, olerkiak, txistea eta halakoak asmatzen ditu; umorea du; independentea da; esperientzia berriak bizitzeko prest dago...”. Zuzenketarako 0, 1, 2 edo 3 puntu ematen zaizkio, hurrenez hurren, esaldiaren edukia aplikatzeko intentsitate-mailaren arabera (batere ez, zertxobait, nahiko, asko).

4.2.3. Emaizak

Programaren efektuak garapen sozioemozional eta sortzailearen faktoreetan.

Oinarrizko suposizioak egiaztatu ostean (normaltasuna, bariantzaren homogeneotasuna eta independentzia), pretest/posttest probatan lortutako datuekin ikerketa-objekturako aldagai bakoitzaren batezbestekoak eta desbideratze tipikoak kalkulatu ziren, esperimentaziorako nahiz kontrolerako partaideekin, eta aldagai anitzeko bariantzen eta aldagai bakarreko bariantzen analisiak egin ziren (MANOVA, ANOVA) pretest- eta posttest-proben puntuazioekin eta baita pretest/posttest desberdintasunekin, eta pretest fasean, bi taldeen artean desberdintasun adierazgarriak aurkitutako aldagai horietan kobariantzak lortu ziren (MANCOVA, ANCOVA). Emaizak 2. Taulan aurkezten dira.

2. TAULA. Aldagai sozioemozional eta sortzaileetan, esperimentalen eta kontrolekoen bariantza-analisiaren batezbestekoak, desbideratze tipikoak eta emaitzak pretest eta posttest faseetan eta pretest/posttest desberdintasunean.

Aldagaiak	Taldea esperimentala (n = 53)						Kontrolerako taldea (n = 27)						Esperimentala/kontrolerako (n = 80)			
	Ebaluazioa Pre		Ebaluazioa Post		Ebaluazioa Pre-Post		Ebaluazioa Pre		Ebaluazioa Post		Ebaluazioa Pre-Post		Anova Pre		Anova Pre/Post	
	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT	F (1, 78)	F (1, 78)	F (1, 78)	F (1, 78)
Lidergoa	23.06	10.12	29.49	12.53	6.43	10.30	26.41	14.34	28.04	10.12	1.63	13.17	1.46	3.20	1.84	
Alaitasuna	23.72	6.82	26.32	7.31	2.60	7.58	26.63	8.22	24.74	7.18	-1.89	6.77	2.83	6.73*	3.88+	
Sentikortasun soziala	21.21	7.18	25.51	7.79	4.30	8.87	25.48	12.43	23.07	6.58	-2.41	11.97	3.79	8.03**	3.99*	
Errespetua/autokontrola	34.11	13.34	39.32	10.45	5.21	11.51	39.89	12.94	38.04	10.87	-1.85	13.03	3.41	6.14*	2.67	
Agresibitatea/egoskorkeria	9.02	9.28	6.02	6.44	-3.00	6.67	2.81	3.61	4.15	6.13	1.33	5.07	11.12***	8.78**	1.15	
Gogogabetasuna/herabetasuna	6.26	7.94	5.45	6.50	-0.81	6.95	5.93	9.29	6.85	8.88	0.93	6.86	0.29	1.12	1.32	
Antsietatea/lotsa	9.98	5.05	7.40	5.49	-2.58	5.90	5.93	4.44	9.56	4.57	3.63	6.91	14.45***	17.62***	5.88*	
Egokitzapen sozial globala	32.89	7.05	35.66	6.81	2.77	6.23	35.07	8.26	35.22	7.51	0.15	7.75	1.53	2.68	1.32	
Ezgonkortasun emozionala	2.02	1.51	1.32	1.31	-0.70	1.75	1.74	1.25	1.74	1.22	0.00	1.64	0.67	2.96+	2.46	
Jolaserako lagunaren aukeraketa	4.85	2.29	8.53	3.20	3.68	3.57	6.37	3.10	6.63	2.43	0.26	2.69	6.15*	19.09***	11.90***	
Jolaserako lagunaren bazterketa	2.66	2.40	2.13	2.32	-0.53	2.60	2.67	1.71	2.70	3.13	0.04	2.63	0.00	0.83	1.00	
Lagun prosozialaren aukeraketa	3.91	2.45	6.87	2.82	2.96	3.03	3.89	2.15	5.44	2.84	1.56	1.94	0.00	4.77*	5.60*	
Lagun prosozialaren bazterketa	2.17	2.20	2.23	2.43	0.06	2.32	2.96	1.67	2.52	2.32	-0.44	2.02	2.68	0.90	0.12	
Autokontzeptua	21.79	5.46	21.21	5.04	-0.58	5.28	23.59	3.81	20.26	4.39	-3.33	5.10	2.33	4.95*	2.62	
Nortasun sortzailea (irakasleak)	34.06	10.70	43.58	12.52	9.53	11.80	36.70	12.75	40.56	12.46	3.85	8.53	0.96	4.91*	3.89+	
Nortasun sortzailea (gurusoak)	38.13	8.01	40.51	9.96	2.38	8.70	40.26	8.22	40.44	11.20	0.19	9.92	1.23	1.03	0.52	

+ $p < .10$ * $p < .05$ ** $p < .01$ *** $p < .001$

Lortutako emaitzek agerian utzi dute bizikidetzarako hezkuntza-programa honek aldaketa positiboak, modu esanguratsuan, estimulatu dituela haurren garapen sozioemotional eta sortzailearen hainbat faktoretan (ikus 2. Taula). Haurren sozializazioari dagokionez, MANOVA pretestaren emaitzek desberdintasun adierazgarriak nabarmendu dituzte esperimentaziotan eta kontrolekoen artean, $F(1, 78) = 4.77, p < .001$, eta desberdintasunak aurkitu ziren MANCOVA pretest/postestean ere, $F(1, 78) = 2.41, p < .05$.

Aldagai bakoitzaren azterketak modu independentean (ANOVA) berretsi zuen esperimentalek estatistikoki nabarmen egin zutela gora, eta kontrolekoek, aldiz, behera: alaitasuna (esperimentalak $M = 2.60$, kontrolekoak $M = -1.89$), $F(1, 78) = 6.73, p < .05$, sentikortasun soziala (esperimentalak $M = 4.30$, kontrolekoak $M = -2.41$), $F(1, 78) = 8.03, p < .01$, eta autokontrolari dagokionez (esperimentalak $M = 5.21$, kontrolekoak $M = -1.85$), $F(1, 78) = 6.14, p < .05$. Bestalde, pretest fasean bi taldeen artean desberdintasun adierazgarriak zituzten aldagaien artean ANCOVAren emaitzek, antsietate/lotsari dagokionez, adierazi zuten esperimentalen kasuan gutxitze bat gertatu zela ($M = -2.58$) eta kontrolekoen kasuan gorakada bat ($M = 3.63$), $F(1, 78) = 5.88, p < .05$. Ezegonkortasun emozionalari dagokionez, pretest emaitzek ez zuten nabarmendu bi taldeen artean desberdintasun adierazgarriak, $F(1, 78) = 0.67, p > .05$. Dena den, pretest/posttest ANOVAk erakusten du aldagai horretan partaide esperimentalek behera egin zutela ($M = -0.70$); kontrolekoek ez zuten aldaketarik izan ($M = 0.00$), eta desberdintasunak joera adierazgarriak baino ez ziren izan $F(1, 78) = 2.96, p < .10$.

Jolaserako lagunak eta lagun prosozialak aukeratzeko/baztertzeko garaian, pretest MANOVAk agerian utzi zituen desberdintasun adierazgarriak esperimentalen eta kontrolekoen artean, $F(1, 78) = 3.43, p < .05$, eta pretest/posttest MANCOVA ere desberdintasunak topatu ziren, $F(1, 78) = 2.62, p < .05$. Modu independentean egindako aldagai bakoitzaren analisiak berretsi zuen esperimentalen kasuan gora egin zuela modu adierazgarrian lagun prosozialen aukeraketak ($M = 2.96$) kontrolekoen aldean ($M = 1.56$), $F(1, 78) = 4.77, p < .05$. Jolaserako lagunen aukeraketaren kasuan –pretest fasean bi taldeen artean desberdintasun adierazgarriak zituen aldagaia– pretest/posttest ANOVAk agerian utzi zuen gorakada adierazgarriagoa esperimentaletan ($M = 3.68$) kontrolekoetan baino ($M = 0.26$), $F(1, 78) = 11.90, p < .001$.

Autokontzeptuari dagokionez, pretest ANOVAk ez zituen agerian utzi desberdintasun adierazgarriak bi taldeen artean, $F(1, 78) = 2.33, p > .05$, aldiz, test-aurreko/test-osteko ANOVAk erakutsi zuen desberdintasunak, estatistikoki, adierazgarriak izan zirela; esperimentalen kasuan beherakada txikiagoa izan zen ($M = -0.58$) kontrolekoena baino ($M = -3.33$), $F(1, 78) = 4.95, p < .05$.

Azkenik, nortasun sortzailearen portaera eta bereizgarrietan, irakasleen eta gurasoen iritzia modu bateratuan hartuta, MANOVA pretestaren emaitzek ez zituzten nabarmendu desberdintasun adierazgarriak esperimentalen eta kontrolekoen artean, $F(1, 78) = 0.79, p > .05$, aldiz, pretest/posttest MANOVAk adierazi zituen joera esanguratsua duten desberdintasunak bi taldeen artean, $F(1, 78) = 2.56, p < .10$. Aldagai bakoitzaren ANOVAk, modu independentean, irakasleen iritzia kasuan soilik berretsi zuen estatistikoki adierazgarriak diren desberdintasunak, $F(1, 78) = 4.91, p < .05$, gorakada handiagoa izan baitzen esperimentalen kasuan ($M = 9.53$) kontrolekoenean baino ($M = 3.85$).

Generoaren eragina programaren efektuetan

Programak, sexuaren arabera, efektu diferentziala izan ote zuen jakiteko helburuarekin, azterketa deskriptiboak (batezbestekoak eta desbideratze tipikoak) eta bariantzazkoak (ANOVAk eta ANCOVAk) egin ziren pretest fasean eta sexuaren arabera pretest/posttest desberdintasunetan, eta horien emaitzak 3. Taulan jasota daude.

3. TAULA. Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren efektuak aldagai sozioemozional eta sortzaileetan generoaren arabera: batezbestekoak, desbideratze tipikoak eta pretest/posttest desberdintasunetarako ANOVA eta ANCOVA emaitzak.

Aldagaiak	Gizonak (n = 21)						Emakumeak (n = 32)						Guztizkoa (n = 53)			
	Ebaluazioa Pretest		Ebaluazioa Pretest		Diferentziala Pre-Post		Ebaluazioa Pretest		Ebaluazioa Posttest		Diferentziala Pre-Post		Anova Pre		Anova Pre-Post	
	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT	F (1, 51)	F (1, 51)	F (1, 51)	F (1, 51)
Lidergoa	19.81	10.25	27.29	14.57	7.48	12.99	25.19	9.61	30.94	11.00	5.75	8.24	3.76	0.35	0.01	
Alaitasuna	21.33	6.58	23.71	9.12	2.38	9.35	25.28	6.62	28.03	5.32	2.75	6.32	4.52*	0.29	1.99	
Sentikortasun soziala	17.52	7.35	23.52	9.59	6.00	10.56	23.63	6.04	26.81	6.16	3.19	7.53	10.86**	1.28	0.45	
Errespetua/autokontrola	26.05	11.61	34.24	11.62	8.19	10.24	39.41	11.78	42.66	8.19	3.25	12.02	16.47***	2.39	1.49	
Agresibitatea/egoskorkeria	13.57	9.46	8.81	7.76	-4.76	6.66	6.03	7.98	4.19	4.68	-1.84	6.52	9.76**	2.49	0.66	
Gogogabetasuna/herabetasuna	7.95	7.96	7.90	8.88	-0.05	7.67	5.16	7.86	3.84	3.64	-1.31	6.51	1.58	0.41	3.58	
Antsietatea/lotsa	10.95	5.78	7.10	5.59	-3.86	5.73	9.34	4.49	7.59	5.51	-1.75	5.95	1.29	1.63	0.65	
Egokitzapen sozial globala	29.00	7.62	32.43	8.79	3.43	6.47	35.44	5.38	37.78	4.03	2.34	6.14	1.98***	0.37	1.43	
Ezgonkortasun emozionala	2.38	1.74	1.90	1.54	-0.48	1.77	1.78	1.31	0.94	0.98	-0.84	1.74	2.03	0.55	6.23*	
Jolaserako lagunaren aukeraketa	4.67	2.57	7.71	3.08	3.05	3.51	4.97	2.13	9.06	3.21	4.09	3.61	0.21	1.08	2.07	
Jolaserako lagunaren bazterketa	3.62	2.78	3.10	2.46	-0.52	2.60	2.03	1.92	1.50	2.03	-0.53	2.65	6.04*	0.00	3.09	
Lagun prosozialaren aukeraketa	2.86	2.19	5.38	2.80	2.52	2.69	4.59	2.40	7.84	2.41	3.25	3.25	7.05*	0.72	7.13**	
Lagun prosozialaren bazterketa	3.86	2.39	3.67	2.83	-0.19	2.85	1.06	1.13	1.28	1.55	0.22	1.93	32.69***	0.38	3.42	
Autokontzeptua	21.38	5.54	19.90	5.14	-1.48	5.68	22.06	5.48	22.06	4.85	0.00	5.01	0.19	0.99	2.27	
Nortasun sortzailea (irakasleak)	29.38	12.13	39.76	13.05	10.38	10.80	37.13	8.52	46.09	11.69	8.97	12.55	7.46**	0.17	0.41	
Nortasun sortzailea (gurasoak)	37.52	7.45	40.14	9.76	2.62	8.99	38.53	8.45	40.75	10.23	2.22	8.65	0.19	0.02	0.00	

* $p < .05$ ** $p < .01$ *** $p < .001$

Esku-hartzearen aurreko genero-desberdintasunak kontuan izanda, ANCOVA analisiek soilik erakusten dute, programa ezarri ostean, neskek mutilek baino lagun prosozial gehiago nabarmen aukeratu zituztela (mutilek $M = 2.52$, neskek $M = 3.25$), $F(1,51) = 7,13$, $p < .01$. Beraz, baieztatu dezakegu aldaketa diferentzial gutxi sortu zituela generoari dagokionez.

Aldaketaren pertzepzio subjektiboa subjektu esperimentaletan: bizikidetzarako hezkuntza-programaren ebaluaketa-galdetegia.

Esku-hartzearen ebaluazioa esperimentalaren emaitzak osatzeko helburuarekin, programako ebaluazio-galdetegiak aztertu ostean lortutako emaitzak ezagutzera ematen dira, 53 subjektu esperimentalek programa amaitutakoan betetakoak. Lehenik eta behin, programaren hainbat helbururekin erlazionatutakoarekin subjektiboki jasotako aldaketa-mailaren maiztasunak eta portzentajeak aurkezten dira (ikus 4. Taula). Ondoren, 2, 3, 4, 5 eta 6. Koadroetan jasota daude programaren ebaluazio-galdetegiaren galdera irekiei haur parte hartzaileek emandako erantzun kualitatibo literalak.

4. TAULA. Esku-hartzearen helburuetan antzemandako aldaketaren maiztasun-banaketa eta erantzun-portzentajea, Elkarrekin bizikidetzara erakiz, Lehen Hezkuntzako programaren ebaluazio-galdetegiarekin baloratutakoak.

	Erabateko desadostasuna		Desadostasuna		Ados		Erabat ados	
	n	%	n	%	n	%	n	%
1. Taldekako jardueratan gehiago parte hartzen dut.	4	7.5%	2	3.8%	23	43.4%	24	45.3%
2. Gehiago hitz egiten dut nire taldekideekin.	4	7.5%	2	3.8%	17	32.1%	30	56.6%
3. Taldearen barruan lagun berriak egin ditut.	3	5.7%	5	9.4%	25	47.2%	20	37.7%
4. Ausartzen naiz nire iritzia ematen nahiz eta gainerakoak nik esandakoarekin ados ez egon.	5	9.4%	13	24.5%	14	26.4%	21	39.6%
5. Gehiago errespetatzen ditut gainerakoen iritzia.	3	5.7%	2	3.8%	30	56.6%	18	34.0%
6. Gehiago arduratzen naiz nire kideek behar dutenaz.	5	9.4%	3	5.7%	24	45.3%	21	39.6%
7. Gehiago partekatzen ditut nire gauzak, nire jostailuak...	3	5.7%	7	13.2%	17	32.1%	26	49.1%
8. Nire kideengan konfiantza handiagoa dut.	3	5.7%	3	5.7%	18	34.0%	29	54.7%
9. Kooperatzen ikasi dut, laguntza ematen edo jasotzen taldeko jarduerak egiteko garaian.	4	7.5%	4	7.5%	24	45.3%	21	39.6%
10. Sentitzen dudana adierazten dut.	5	9.4%	9	17.0%	19	35.8%	20	37.7%
11. Besteen sentimenduekiko arreta handiago jartzen dut.	2	3.8%	5	9.4%	17	32.1%	29	54.7%
12. Nire burua hobe ikusten dut, hobe naiz, baliagarriagoa...	5	9.4%	4	7.5%	25	47.2%	19	35.8%
13. Nire kideekiko iritzi hobe dut ; baliagarriagoak, estimatuagoak eta hobeak direla uste dut.	5	9.4%	5	9.4%	20	37.7%	23	43.4%
14. Jolasaren arauak gehiago errespetatzen ditut.	6	11.3%	0	0.0%	22	41.5%	25	47.2%
15. Hitzekin jolas egiten dudanean, ideia originalagoak eta sortzaileagoak izaten ditut.	4	7.5%	10	18.9%	21	39.6%	18	34.0%
16. Ideia originalagoak eta sortzaileagoak izaten ditut marrazten, margotzen edo eskulanak egiten ditudanean.	4	7.5%	6	11.3%	14	26.4%	29	54.7%
17. Asko gustatu zaizkit hiru urte hauetan egin ditugun jarduerak; oso dibertigarriak izan dira.	2	3.8%	5	9.4%	23	43.4%	23	43.4%

4. Taulan ikus daitezke bizikidetzarako hezkuntza-programa amaitu ostean, programaren hainbat helburutan haurrek antzemandako aldaketaren maiztasun-banaketa eta erantzun-portzentajea. Partaideek helburu horiekiko beren aldaketa-maila ebaluatzen dute, eta adierazten dute aurkeztutako 17 baieztapenekin ea “erabateko desadostasuna” edo “desadostasuna” duten, edo horiekin “ados” edo “erabat ados” dauden. Ikus daitekeen bezala, programan parte hartu zuten 53 haurrek oso modu positiboan baloratu zuten. Azpimarratu behar da ebaluaketa-galdetegiak dituen helburu guztietan adierazten dela beraien buruengan antzeman duten aldaketa-maila, programa martxan egon den hiru urtetan, nahiko handia izan dela. Orokorrean, 5. Taulan erakusten den bezala, partaideen % 65 baino gehiago ados edo erabat ados dago galdetegian ebaluatutako programaren helburuekin erlazionatutako aldaketa positiboen pertzepzioarekin. 5. helburuaren aldaketarekiko pertzepzioan dago adostasun handiena, “Besteen iritziak gehiago errespetatzen ditut” (haurren % 90,6 ados edo erabat ados dago baieztapen horrekin), eta adostasun txikiagoa du 6 zenbakidun itemean aurkeztutako helburuak “Nire iritzia ematera ausartzen naiz, besteak iritzi berekoak ez izan arren” (guztira, partaideen % 66 ados edo erabat ados dago baieztapen horrekin).

Jarraian (ikus 2,3,4,5 eta 6. Koadroak) programaren ebaluazio-galdetegiaren galdera irekiei partaide esperimenteralek emandako erantzun kualitatibo literalak: (1) Zer hitz erlazionatzen dituzu bizikidetzarako hezkuntza-programarekin? (2) Haurren eskubide guztietatik baten bat besteak baino garrantzitsuagoa iruditzen zaizu? Zergatik? (3) Zer da zuretzat garrantzitsuena haurren eskubide bakoitzetik? (4) Zein izan dira jarduera gustukoenak? Zergatik? (5) Zein izan dira gutxien gustatu zaizkizun jarduerak? Zergatik? 2,3,4,5 eta 6. Koadroetan partaideek emandako erantzun literalak jasotzen dira, edukien arabera antolatuak izan ostean. Hitz edo esaldi baten atzean azaltzen diren zenbakiak adierazten dute bizikidetzarako hezkuntza-programaren ebaluazioaren 53 galdetegietako maiztasuna.

2. KOADROA. Elkarrekin bizikidetzera eraikiz, Haur Hezkuntzako programarekin erlazionatutako hitzak.

Haurren eskubide guztien artean, baten bat besteak baino garrantzitsuagoa dela iruditzen zaizu? Zergatik?

Eskubide guztiek garrantzi antzekoa: Ez, denak dira oso garrantzitsuak, denak dira hein berean garrantzitsuak (23). Ez, denak berdinak garelako eta denok behar ditugulako eskubideak (1). Ez, eskubide guztiak beharrezkoak dira (1). Ez, denak dira garrantzitsuak eta munduko haur guztiek behar dituzte (1). Ez, denak haurrentzat dira (1).

Bizitzeko eskubidea: Bizitzeko eskubidea (2). Bizitzeko eskubidea, bizi ahal izateko eskubideak ditugulako (1). Bizitzeko eskubidea, bestela ez ginen biziko (1). Bizitzeko eskubidea, bizi behar garelako (1). Erlazioetarako, garapenerako eta halako gauzetarako daukagulako (1).

Bizikidetzarekin eta haurren eskubideekin erlazionatutako beste erantzun batzuk: Eskolara joateko eskubidea, bestela ez ditugulako gauzak ikasten, etxean geratzen badira ez dutelako ezer ikasten (3). Babesa jasotzeko eskubidea (2). Ikastea, oso garrantzitsua delako haurrentzat (1). Bizikidetzara (1). Jaten eta edaten eman (1). Gauzak egiteko eskubidea, haurrek gauzak egiteko eskubidea dutelako (1). Familia (1). Nortasuna (1). Jolastu, lagunekin ondo pasatzen duzulako (1). Ez haserretu, horrela lagunak galtzen dira (1). Bakea (1). Aske izan (1).

Beste erantzun batzuk: Batzuetan bat eta beste batzuetan beste bat da gainerakoak baino garrantzitsuago (1). Haurrak, emakumeak, gizonezkoak, animaliak... (1). Bai, batzuk tontakeriak esaten dituztelako (1). Bai, batzuk garrantzitsuagoak direlako haurrak ongi bizitzeko (1). Bai, hobeak direlako (1). Bai, batzuk gauza batzuk esaten dituzte eta beste batzuk beste gauza batzuk (1).

4. KOADROA. Haurren eskubideekin erlazionatutako eduki garrantzizkoenak.

Zure ustez zer da garrantzitsuena haurren eskubide bakoitzean?

Bizitzeko eskubidea: Familia (16). Bizi, bizitza (8). Janaria, hurrei jaten ematea, ongi elikatzea (4). Lagunak, lagunak izatea (3). Jolastea (3). Oso garrantzitsua (2). Ura (1). Amona (1). Maitasuna (1). Ikastea eta gero lan egitea (1). Garapena (1). Hitz egitea (1). Eskolako lanak egitea (1). Eskolara joatea (1). Jaiotzea eta ongi pasatzea (1). Haurrak, emakumeak, gizonezkoak, animaliak... (1). Ez da inor hil behar (1). Bizitzeko parte hartzen dugu (1). Bakea (1). Erlazioetarako, garapenerako eta horrelako gauzetarako daukagulako (1). Bizi garelako (1). Mundua ikus dezakezu eta bizi (1). Errespetatu (1). Denok dugu bizitzeko eskubidea (1). Lasai bizi (1). Bizitzea da garrantzitsuena (1).

Nortasun eskubidea: Garrantzitsua, oso garrantzitsua (4). Izen bat edukitzea (4). Nortasuna izatea (4). Lagunak, lagunak izatea (3). Bakoitzak bere nortasuna edukitzea, bakoitzak nortasun desberdin bat eduki behar du (2). Politia (2). Zure bizitzaren jabe izatea (2). Bakea, bakea munduan (2). Aita (1). Ama (1). Nolakoak garen eta horri buruz esaten dutenaren beldur ez izatea (1). Atsedena hartu (1). Dirua (1). Ondo pasa (1). Indartsua (1). Saiatzeko gogoia (1). Eskolako lanak ongi egin (1). Jostailuak (1). Inor ez (1). Haurrak, emakumeak, gizonezkoak, animaliak... (1). Ez aspertu (1). Ez dizute dena esaten, zuk egiten duzu (1). Gure jabetza (1). Nortasuna dugulako (1). Birziklapena (1). Nor den jakitea (1). Haurrek zerbait nahi badute, kasu egin (1). Eskubide hori ere badugu (1). Denok ditugu eskubideak (1). Denok jolastu behar dugu (1). Bizi (1). Naizen bezalakoa naiz (1).

Garapen eskubidea: Hazi (3). Lana, lana egin, horrela lan egin dezaket (3). Gauzak ikasi (2). Jaio (2). Handi egiteko (2). Aita (1). Ama (1). Eskola (1). Janaria (1). Eskolako lanak (1). Garatu (1). Maite dugun jendearekin egon eta elikatu (1). Haurrek jolastu egin behar dute garatzeko (1). Oso polita eta oso triste (1). Oso garrantzitsua (1). Oso garrantzitsua, bestela beti izango zinen ume bat (1). Jaio eta hil (1). Inor ez (1). Haurrak, emakumeak, gizonezkoak, animaliak... (1). Ez zera beti txikia eta gauza gehiago ikasten dituzu (1). Ez jo (1). Esana bete (1). Lagunekin egoteko (1). Ondo pasa (1). Txikia... zaharra (1). Pertsona (1). Zergatik garatzen garen (1). Zergatik hazi gaitzake (1). Haurrek ez dezatela lanik egin, adibidez, autoak garbitzen (1). Erlazionatu (1). Garatzeko eskubidea dugu (1). Lasai bizi (1).

Babesa jasotzeko eskubidea: Babesa (7). Gurasoak (5). Familia (4). Familia eta lagunak (3). Babestua egoteko eskubidea (2). Norbaitek/beste batek zu babestea (2). Etxea (1). Elikagai onak jatea eta ez txarrak (1). Babesteko gaude (1). Denok babesa izatea (1). Garrantzitsua (1). Oso garrantzitsua, bestela ez zinateke behar bezala haziko (1). Haurrak, emakumeak, gizonezkoak, animaliak... (1). Bizitza arriskuan ez jarri (1). Gaixorik ez jarri (1). Ez zaude bakarrik, norbait zurekin dago edo zu norbaitekin (1). Bere gurasoekin egon daitekeelako (1). Babestu egiten zaituztelako (1). Ongi portatu (1). Haurrak babestu (1). Sentitzea zurekin daudenak maite zaituztela eta ez bakarrik sentitu (1). Norbait eduki zure ondoan (1). Etxea edukitzea (1). Gure familia eduki babes gaitzan (1). Haur guztiek babesa eduki behar dute (1). Bitaminak (1). Bakean bizi (1).

Parte hartzeko eskubidea: Jolasak, jolastu, jolasetan, jolasetan edo kiroletan parte hartu (9). Lagunak (3). Parte hartu, parte hartu ahal izan (3). Lagunekin jolastu (2). Oso garrantzitsua (2). Horrela garapen handiagoa lortzen dugu (1). Lagundu (1). Denekin kolaboratu (1). Nahi dugunean hitz egin dezakegu (1). Taldea (1). Oso ona da (1). Hitz egin (1). Eskolan eskua altxatzen dugunean, irakasleari kasu egitea (1). Gauzak egitea (1). Eliza (1). Inor ez (1). Haurrak, emakumeak, gizonezkoak, animaliak... (1). Ezin dira egon zazpi pertsona eta horietako bat gainerako seiekin ez egotea (1). Ongi pasatzen dugu batzuetan (1). Ikasteko (1). Pozik parte hartu (1). Parte hartu hitz egiten dugulako (1). Ongi pasa eta ez haserretu (1). Parte hartzen dugulako (1). Jendea errespetatu (1). Ona izan (1). Parte hartzeko eskubidea dugu (1). Lagunak dituzu eta ez zaude bakarrik (1). Denok jolas dezakegu (1). Denek parte hartu behar dugu (1). Bizitza zer den landu (1).

5. KOADROA. Jardueren balorazioa: Gustukoenak.

Zein izan dira gehien gustatu zaizkizun jarduerak? Zergatik?

Animalia (hamsterra/dordoka) ikasgelan: Animalia (7). Ezagutzea (2). Ikasgelara ekartzea (2). Izena jartzea (1). Ezagutzea eta zaintzea (1). Animalia etorri zenean, ez nuelako espero (1). Asko gustatu zitzaidalako eskolara etortzea (1). Oso ondo zaindu behar genuelako eta oso maitekorra zelako (1). Animalia edukitzea, oso gustuko dudalako zaintzea (1).

Marraskia: Denon artean, jolasean, marraski bat egin genuenean eta konpondu egin genuenean (2). Marraskiak, asko gustatzen zaidalako margotzea (1). Marraskia egitea (1). Denon artean marraski bat egitea, denon artean egin genuelako (1). Marraski bat egitea, nahi genuena marraztu genuelako (1). Marraski bat egin eta amaitzean kartulina batean itsastea (1). Marraski bat egin eta gero hautsi berriro ere egiteko, oso dibertigarria izan zelako (1). Berriro ere egin (1).

Jarduerak gimnasioan: Gimnasiokoak, ariketa fisikoa egiten dugulako (1). Gimnasiokoak, jolasak egiten genituelako (1). Gimnasiokoak, oso dibertigarriak zirelako (1). Gimnasioan egin genuena (1).

Bideoak: Bideoak, dibertigarriak direlako (2). Bideoak oso gustukoak izan ditugu, esperientzia berri bat direlako (1). Bideoak ikusi gehiago ikasteko (1). Bideoak ikusi dibertigarria delako eta ez naizelako aspertzen (1). Bideoak (1). Bideoak, politak zirelako (1).

Jarduera guztiak: Denak, oso dibertigarriak izan direlako (2). Denak izan dira oso politak (1). Denak, eta denetan eman dut nire iritzia (1).

Beste jarduera batzuk: Plastikarekin erlazionatutako jarduera guztiak, oso dibertigarriak zirelako (2). Asia eta Espainia alderatzea eta zer den berdina eta zer desberdina ikustea (1). Txaluparena egin genuenean oso ondo pasa genuen (1). Lagun berri bat etorri zenean, berari buruz hizketan aritu ginelako denon artean (1). Harrapaketan jolastea, oso dibertigarria izan zelako (1). Bizitza, bizikidetzeta eta sentimenduak, oso interesgarria iruditu zaidalako (1). Bizitza, gurekin erlazionatua dagoelako (1). Tutoretzakoak, besteekin batera ikasten dugulako (1). Gatazkarena, oso dibertigarria izan zelako eta gainera nola kontrolatu ikasi genuelako (1). Testak, horrela zure burua hobeto ezagutzen duzu (1). Gauzetan parte hartu eta elkarrekin ongi konpondu (1). Ikasgelako arauak jartzea (1).

6. KOADROA. Jardueren balorazioa: Gutxien gustatu zaizkigunak.

Zein izan dira gutxien gustatu zaizkizun jarduerak? Zergatik?

Batere ez: Denak gustatu zaizkit (9). Batere ez, ezer ez (4).

Marraskia hausteko jarduera: Marraskia haustea (2). Ez zitzaidan gehiegi gustatu eta ez nuen parte hartu (1). Gaizki sentitu nintzen (1). Gure artelana hautsi genuelako (1).

Jarduerak gimnasioan: Horietako batean min eman zidatelako (1). Aspergarriak iruditu zitzaizkidalako (1). Soilik etzanda geundelako (1).

Hitz egitea: Elkarriketak, asko hitz egin dugulako (1). Asko hitz egitea (1). Hitz egitea, ikasgelan hizketan geratzea, aspergarria delako (1).

Beste jarduera batzuk: Gatazka ez da oso interesgarria izan (2). Animalari izena jartzea, liskarrak egon zirelako (2). Testak/probak, aspertu egiten naizelako (2). Triste sentitu naizenean, ez zaidalako gehiegi gustatu (1). Nekazaritzaz hitz egitea, oso aspergarria zelako (1). Nortasuna, ez dudalako ulertzen (1). Goman jolastea, dena errepikatzen delako (1). Posterrekin egindako harresiak (1). Bi egunetan ez hitz egitea (1). Plastika, marraztu egiten dugulako soilik, ez dugu ezer ikasten (1). Bideoak, oso aspergarriak zirelako (1). Bozketak, hasieran zenbaki bat esan genuelako eta amaieran beste bat eta ez ginen ados jarri (1).

Programaren ebaluazio-galdetegiko informazio kualitatibotik azpimarratu beharrekoak: (1) Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programarekin gehien erlazionatzen diren hitzek zerikusia dute bakearekin eta haurren eskubide/betebeharrekin eta baita bizikidetzarekin eta errespetuarekin ere, beste pertsona batzuekin harremanetan gaudenean; (2) partaide gehienek garrantzi antzerakoa ematen diote haurren eskubide guztiei; eta (3) hobekien baloratu dituzten jarduerak animaliarekin izandako bizikidetzaren ingurukoak dira; gutxien gustatu zaizkien jardueri buruz galdetu zaienean, erantzun ohikoena denak gustatu zaizkiela izan da.

Eztabaida

Garapen sozioemozional eta sortzailean programak izan dituen efektuei dagokionez, emaitzek iradokitzen dute Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programari esker gora egin zuten sozializazioa laguntzeko hainbat portaerek (alaitasuna, sentikortasun soziala, errespetua/autokontrola), jolaserako lagunak aukeratzeak, prosozialtzat hartutako lagun kopuruak eta, irakasleen iritziz, nortasun sortzailearen portaerak eta bereizgarriak. Gainera, ikus daiteke autokontzeptua, bi taldetan gutxitu zen arren, askoz gutxiago gutxitu zela talde esperimentalean kontrolekoan baino. Beraz, lehen hipotesia ia bere osotasunean berresten da, desberdintasun nabarmenik ez baitzen nabaritu, soilik lidergoari, egokitzapen sozial globalari eta, gurasoen iritziz, nortasun sortzailearen portaerei eta ezaugarriei dagokionez. Bestetik, emaitzek berresten dute programak modu esanguratsuan gutxitu zuela partaideen antsietate/lotsa eta ezegonkortasun emozionalerako joera, eta horrek neurri batean bigarren hipotesia berresten du, ez baitira gutxitu sozializazioaren beste portaera asaldatzailerik batzuk (agresibitatea/egoskorkeria, gogogabetasuna/herabetasuna), jolaserako lagunekiko bazterketa, ezta prosozialtzat hartutako lagunen kopurua.

Bestalde, programaren ebaluaketa-galdeketa emaitzek, esku-hartzearen amaieran esperimentalei emandakoek, ebaluazioa esperimentalaren emaitzen norabide bera dute, erakusten baitute, inplikatuak ikuspegi subjektibotik, aldaketa positibo bat haurren nortasunaren hainbat faktore jokabidezko eta kognitibotan. Ikerketa honetan lortutako emaitzek baieztatu egiten dute beste ikerketa batzuetan eskuratutakoak, horiek ere agerian utzi baitzituzten esku-hartze psikohezitzaileko programen efektu positiboak, haurren garapen sozioemozional eta sortzailearen jardura kooperatibo eta sortzaileetan oinarritutakoak (Garaigordobil 2003ab, 2004ab, 2005ab; 2004ab, 2005ab; Garaigordobil & Fagoaga, 2006; Garaigordobil & Pérez, 2004).

Generoak programaren efektuetan izandako eraginari dagokionez, emaitzek egiaztatzen dute Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programak, generoari dagokionez, aldaketa diferentzial gutxi sortu zituela. Soilik ikusi ahal izan da, programa ezarri ostean, neskek mutilek baino nabarmen lagun prosozial gehiago aukeratu zituztela. Ondorioz, hirugarren hipotesia, Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren efektuetan generoak eraginik izango ez zuela zioena, ia osotasunean berretsi da. Emaitzek beste ikerketa batzuen emaitzen norabide bera dute, mota honetako esku-hartzeetan ez da ia efektu diferentzialik izaten generoaren arabera (Garaigordobil & Fagoaga, 2006; Garaigordobil & Pérez, 2004).

Datuek, orokorrean, berresten dute jardura kooperatibo eta sortzaileetan oinarritutako esku-hartzeek efektu positiboa dutela, eta baliozkotzat jotzen dute Lehen Hezkuntzako esku-hartze psikopedagogiko programa hau; hainbat teknika, material eta euskarri komunikatiboren bidez, haurren garapen sozioemozional eta sortzailea pizten baitu bizikidetzarako hezkuntzaren, giza eskubideen errespetuaren eta bake-kulturaren markoan.

Ikerketak honako ikerketa-lerro hauek zabalik uzten ditu: (1) programaren efektuak aztertzea garapen kognitiboan, edo garapen sozioemozional edo sortzailearen beste aldagai batzuetan; (2) programaren efektuak esku-hartzea zuzentzen duen helduaren ezaugarriekin interakzioan ebaluatzea; eta (3) beste ebaluazio-estrategia batzuk erabiltzea, adibidez, teknika behatzaileak menpeko aldagaiak neurtzeko.

Erreferentzia bibliografikoak

Chandy, S. R. (2007). Best practices and positive youth development program evaluation of a parenting-based youth violence prevention program. *Dissertation Abstracts International: Section B: The Sciences and Engineering*, 67(7-B), 4098.

Dawn, J., & Shaughnessy, J. (2005). Promoting non-violence in schools: the role of cultural, organisational and managerial factors. *Educational and Child Psychology*, 22, 58-66.

Dole, K. (2006). The effect of the Balance Program on aggression in the classroom. *Dissertation Abstracts International: Section B: The Sciences and Engineering*, 67(2-B), 1180.

Farrell, A. D., Meyer, A. L., & White, K. S. (2001). Evaluation of Responding in Peaceful and Positive Ways (RIPP): a school-based prevention program for reducing violence among urban adolescents. *Journal of Clinical Child Psychology*, 30, 451-463.

Freiden, J. (2006). Game: a clinical intervention to reduce adolescent violence in schools. *Dissertation Abstracts International Section A: Humanities and Social Sciences*, 66(12-A), 4308.

Garaigordobil, M. (2003a). Intervención psicológica para desarrollar la personalidad infantil. Juego, conducta prosocial y creatividad. Madrid: Pirámide. (1. bolumena).

Garaigordobil, M. (2003b). Programa Juego 8-10 años. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 8 a 10 años. Madrid: Pirámide. (3. bolumena).

Garaigordobil, M. (2004a). Programa Juego 10-12 años. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 10 a 12 años. Madrid: Pirámide. (4. bolumena).

Garaigordobil, M. (2004b). Intervención psicológica en la conducta agresiva y antisocial con niños. *Psicothema*, 16(3), 429-435.

Garaigordobil, M. (2005a). Programa Juego 6-8 años. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 6 a 8 años. Madrid: Pirámide. (2. bolumena).

Garaigordobil, M. (2005b). Prosocial and creative play: Effects of a program on the verbal and nonverbal intelligence of children aged 10-11 years. *International Journal of Psychology*, 40(3), 176-188.

- Garaigordobil, M., & Fagoaga, J. M. (2006). Juego cooperativo para prevenir la violencia en los centros educativos: Evaluación de programas de intervención para educación infantil, primaria y secundaria. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia. Dirección general de Educación, Formación profesional, e Innovación Educativa. Centro de Investigación y Documentación Educativa.
- Garaigordobil, M., & Pérez, J. I. (2004). Evaluación de un programa de juego creativo: Implicaciones en la estabilidad emocional, las estrategias de interacción social y el autoconcepto de niños de 10 a 11 años. *Educación y Ciencia*, 8(15), 65-84.
- Garaigordobil, M., & Pérez, J. I. (2005). Escala de Personalidad Creadora: Estudio psicométrico exploratorio. *Estudios de Psicología*, 26(3), 345-364.
- Koppitz, E. (1976). El dibujo de la figura humana en los niños. Buenos Aires: Gudadalupe (trabajo original publicado en 1968).
- Moreno, J. L. (1972). Fundamentos de la sociometría. Buenos Aires: Paidós (trabajo original publicado en 1934).
- Roberts, L., White, G., & Yeomans, P. (2004). Theory development and evaluation of project WIN: a violence reduction program for early adolescents. *The Journal of Early Adolescence*, 24, 460-483.
- Segawa, E., Ngwe, J. E., Li, Y., & Flay, B. R. (2005). Evaluation of the effects of the Aban Aya Youth Project in reducing violence among African American adolescent males using. *Evaluation Review*, 29, 128-148.
- Sege, R. D., Licenziato, V. G., & Webb, S. (2005). Bringing violence prevention into the clinic: the Massachusetts medical society violence prevention project. *American Journal of Preventive Medicine*, 29, 230-232.
- Silva, F., & Martorell, M.C. (1983). Batería de socialización BAS 1 y 2. Madrid: TEA.
- Simon, T. R., Ikeda, R. M., Smith, E. P., Reese, L. E., Rabiner, D. L., Miller-Johnson, S., Winn, D. M., Dodge, K. A., Asher, S. R., Home, A. M., Orpinas, P., Martin, R., Quinn, W. H., Tolan, P. H., Gorman-Smith, D., Henry, D. B., Gay, F. N., Schoeny, M., Farrell, A. D., Meyer, A. L., Sullivan, T. N., & Allison, K. W. (2008). The Multisite Violence Prevention Project: impact of a universal school-based violence prevention program on social-cognitive outcomes. *Prevention Science*, 9, 231-244.
- Slone, M., & Shoshani, A. (2008). Efficacy of a school-based primary prevention program for coping with exposure to political violence. *International Journal of Behavioral Development*, 32, 348-358.
- UNICEF (2006). Convención de los derechos del niño. Madrid: UNICEF Comité Español (1989an argitaratutako lan originala).

5. BIBLIOGRAFIA

Bibliografía

- Andrés, I., & De Castro, F., & De Puig, I., & Moya J. L., & Sático, A. (2003). *Reavaluar. L'avaluació reflexiva a l'escola*. Barcelona: Eumo.
- Arheim, R. (1993). *Consideraciones sobre la educación artística*. Barcelona: Paidós.
- Arheim, R. (1992). *Arte y percepción visual: psicología del ojo creador*. Madrid: Alianza, 1992.
- Barbe-Gall, F. (2009). *Como hablar de arte a los niños*. San Sebastián: Nerea.
- Beetlestone, F. (2000). *Niños creativos, enseñanza imaginativa*. Madrid: La Muralla.
- Berger, J. (2001). *Mirar*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Berger, J. (2000). *Modos de ver*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Berger, J. (1997). *El sentido de la vista*. Madrid: Alianza.
- Bosch, E. (2003), *¿Quién educa a quién?*. Barcelona: Laertes.
- Buxarrais, M^a R. (2003). *La formación del profesorado en educación en valores. Propuestas y materiales*. Bilbao: Desclee de Brouwer.
- Calaf, M. R. (2003). *Arte para todos*. Gijón: Ediciones Trea.
- Carreras, Ll. y otros / as (1997). *Cómo educar en valores*. Madrid: Narcea.
- Casamayor, G. (coord.), & Antunez, S., & Armejach, R., & Checa, P., &.
- Giné, N., & Guitart, R., & Notó, C., & Rodón, A., & Uranga, M., & Viñas, J. (1998). *Cómo dar respuesta a los conflictos*. Barcelona: Graó.
- De Puig, I., Sático, A. (2004). *Jugar a pensar*. Barcelona: Octaedro.
- De Puig, I. (2003). *Persensar*. Barcelona: Octaedro.
- De Puig, I. *L'art de fer preguntes*. Butlletí Filosofia 3/18, 68, 2 – 11.
- De Puig, I. (2008). *Los derechos de las niñas y los niños*. Barcelona: Octaedro.
- Dondis, D.A. (1980). *La sintaxis de la imagen*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Eisner, E. W. (1995). *Educación la visión artística*. Barcelona: Paidós.
- Eisner, E. W. (2002). *La escuela que necesitamos*. Amorrortu Editores Buenos Aires.
- Efland, A. (2001). *Una Historia de la educación del arte*. Barcelona: Paidós.

- Fisas, V. (1998). *Cultura de paz y gestión de conflictos*, Barcelona: Icaria/UNESCO.
- Gardner, H. (1994). *Educación artística y desarrollo humano*. Barcelona: Paidós.
- Gómez, M. (1999). *Exercicis i plans de discussió*. Butlletí Filosofia 3/18, 38, 10 – 11.
- Goodman, N. (1974). *Los lenguajes del arte*. Barcelona: Seix Barral.
- Guilford, J. (1978). *Creatividad y educación*. Buenos Aires: Paidós.
- Hargreaves, D. J. (1991). *Infancia y educación artística*. Madrid: MEC: Morata.
- Heinelt, G. (1979). *Maestros creativos, alumnos creativos*. Buenos Aires: Kapelusz.
- Hernández, F. (2000). *Educación y cultura visual*. Barcelona, Octaedro.
- Jares, X.(1992). *Transversales. Educación para la paz*, Ministerio de Educación y Ciencia.
- Jares, X. (2004). *Educación para la paz en tiempos difíciles*. Bilbao: Bakeaz, UNESCO.
- Lancaster, J. (1991). *Las Artes en la educación primaria*. Madrid: MEC: Morata.
- Lazotti, L. (1983). *Comunicación visual y escuela*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Le Gal, J. (2005). *Los derechos del niño en la escuela*. Barcelona: Graó
- Levin L. (1999). *Derechos humanos: preguntas y respuestas*. París: Bakeaz, UNESCO.
- Lipman, M., Sharp, A. M., Oscanyan, F. S. (1992). *La filosofía en el aula*. Madrid: de la Torre.
- Lipman, M. y otros (1993). *Asombrándose ante el mundo. Manual del profesor para acompañar a Kio y Gus*. Madrid: de la Torre.
- Lipman, M. y otros (1989). *En busca del sentido. Manual del profesor para acompañar a Pixie*. Madrid: de la Torre.
- Lipman, M. y otros (1996). *Investigación Ética. Manual para acompañar a Lisa*. Madrid: de la Torre.
- Lipman, M. y otros (1988). *Investigación filosófica. Manual del profesor para acompañar a El descubrimiento de Harry Stottlemeier*. Madrid: de la Torre.
- Lorda, J. (1991). *Gombrich: una teoría del arte*. Barcelona: Eiusa.
- Marina, J. A. (1995). *Ética para náufragos*. Barcelona: Anagrama.
- Marina, J. A. (2004). *Aprender a vivir*. Barcelona: Ariel.

- Marina, J. A. (2001). *El laberinto sentimental*. Barcelona: Anagrama.
- Marina, J. A. (1995). *Teoría de la inteligencia creadora*. Barcelona: Anagrama.
- Morin, E. (1996). *El paradigma perdido*. Barcelona: Kairós.
- Morin, E. (2001). *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Barcelona: Paidós.
- Morin, E. (2003). *Educación en la era planetaria*. Barcelona: Gedisa.
- Morin, E. (2011). *La vía. Para el futuro de la humanidad*. Barcelona: Paidós.
- Munari, B. (1985). *Diseño y comunicación visual. Contribución a una metodología didáctica*. Barcelona: GC Diseño.
- Naranjo, C. (2005). *Autoconocimiento transformador*. Vitoria: La llave.
- Naranjo, C. (2001). *Carácter y neurosis*. Vitoria: La llave.
- Naranjo, C. (2004). *Cambiar la educación para cambiar el mundo*. Vitoria: La llave.
- Oteiza, J. (1998). *Quosque tandem...!*. Pamplona: Pamiela.
- Popper, F. (1989). *Arte, acción y participación*. Madrid: Ediciones Akal.
- Read, H. (1969). *Educación por el arte*. Buenos Aires: Paidós.
- Rojas Marcos, L. (2005). *La fuerza del optimismo*. Madrid: Ed. Santillana.
- Sátiro, A. (2004). *Jugar a pensar, con niños de 3 a 4 años*. Barcelona: Octaedro.
- Sátiro, A. (2006). *Jugar a pensar con leyendas y cuentos (7 – 8 años)*. Barcelona: Octaedro.
- Servan-Schreiber, D. (2003). *Curación emocional*. Barcelona: Ed. Kairos.
- Stern, A. (1972). *Comprensión del arte infantil*. Buenos Aires: Kapelusz.
- Torres, T., M., & Juanola, R. (1998). *Dibuixar: mirar i pensar consideracions sobre educació artística*. Barcelona: Rosa Sensat.
- Vygotskij, L. S. (1996). *La imaginación y el arte en la infancia*. Madrid: Akal.
- Wenham, M. (2011). *Entender el arte*. Barcelona: Graó.

6. LANTALDEA

Lantaldea

Proiektuaren koordinazioa: Ikertze. Zurine Adrada eta Leire de Miguel.

Programaren diseinua:

- Elkarriketarako jarduerak: Irene de Puig eta Manuela Gómez (GrupIRF, Grup d'Innovació i Recerca per l'Ensenyament de la Filosofia) eta Leire de Miguel.
- Jarduera artistikoak: Zurine Adrada, Zuhar Iruretagoiena, Adela de Bara.
- Zinea ikasgelan: Blanca Zaragüeta.
- Gorputz-hezkuntzako jarduerak: Zurine Adrada eta Amor Peris.

Gatazken konponbiderako hezkuntza-aholkularia: Mireia Uranga.

Elkarrekin bizikidetza eraikiz, Lehen Hezkuntzako programaren efektuak garapen sozioemozional eta sortzailearen faktoreetan: Jose Ignacio Pérez eta Maite Garaigordobil.

Kontrolerako taldea: Dunboa Ikastetxea.

Programa Koldo Mitxelena Herri Ikastetxean esperimentatu da, lehen hezkuntzako neska-mutilei eta eskolako zuzendaritza-taldeari eta irakasleei esker: Marian Hernández, Pili Intxauspe, Maider Berrondo, Belen Garriz, Belen Pikabea, Nekane Otaño, Egoitz Uranga, Lorena Maeso, Asun Aranburu, Angela Santos, Oiartza Pampliega, Isabel Pintado, Agurtzane Aizpuru, Amalur Elizondo, Ibai Unsuain, Arantxa Gereta, Idoia Irazu, Fatima Arbizu, Itziar Aldazabal, Juanxo Juanikorena, Ander Errazkin, Nuria, Idoia Urrutikoetxea, Ana Mansoa, Arantxa Menendez, Aitor Masias, Gema Sagarzazu, Arantxa Lertxundi, Ainara Tumas, Ane Ezeizabarrena, Joana Villasante, Mertxe Aranzabal, Iraultza Garmendia.

Itzulpena: Leire Urkizu.

Diseinu grafikoa: Nerea Rodríguez.

Eta honako hauen lankidetzat:

